



RAMON SAIZARBITORIA

«Bilbon salbatuko gara
edo ez gara salbatuko»



Inma Errea itzultzailea

«Nafarroako
parlamentariak
barra-barra hasi
dira euskara
erabiltzen»

Gerra Zibilaren finantzazioa

Altxamendua
mantentzeko
funtsezkoa izan
zen Nafarroa

Wroclaw

Kultur Hiriburua
2016an,
Donostiarekin
batera

Francisco Escudero

Bere esanak
berreskuratu
ditugu

BEDD estrategia

Basoak
pribatizatze
bidean

SORTUKO DIRA BESTEAK

GETXO
GETXOFOLK BBK
IRAILAK 9
20:00tan


Eñaut Elorrieta
Alex Sardui (Gatibu)
Mikel Urdangarin
Arantxa Irazusta
Petti
Ametz Arzallus



Antolatzailea:

Babesleak:

Laguntzaileak:



AAKKULTUR
PROMOTORA
E19421153



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko irailaren 2a, 2.334. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

ARRITXU IRIBAR: «Ezin dut defendatu kirolak prentsan tarte zabalegia dueneko teoria». ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

BASOAK Merkatu legeen menpeko irtenbide faltsuak.
UNAI BREA / 5

PERTSONAIA

JESUS LASAGA: «Euskaldunak ez du segidarik Puerto Ricon».
MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIAK

WROCLAW Elkargunerako hiri. JONMIKEL INTSAUSTI / 15

IRITZIAREN LEIHOA

EUROPAKO BANKU ZENTRALA: KRISIAREN GILTZA

BERE ESKU MIKEL ZURBANO / 20

OZONOA BENETAN DOPIN? JON TORNER / 21

PUSSY RIOT ASKATU! KATTALIN MINER / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

BERTSO BERRIAK Hauteskundeei jarriak.

JEXUX MARI IRAZU / 21

TXANDAN Dezibel. ITXARO BORDA / 22

ERDIKO KAIERA

RAMON SAIZARBITORIA: «Nobelagilea gupidagabea da, makurra, gaiztoa, zikina». GORKA BEREZIARTUA / 23

FRANCISCO ESCUDERO Euskal Herriaren arimaren konposatzailea. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 28

LIBURUAK GEMA LASARTE / 30

DISKOAK IKER BARANDIARAN / 31

EZPALAK GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 32

ABARRAK ESTITXU EIZAGIRRE / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

INMA ERREA: «Itzultzaileak itota dabilta, parlamentariak barra-barra hasi dira euskara erabiltzen». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 39

GERRA ZIBILAREN FINANTZAZIOA Zein patrikatik atera zen dirua? DANIEL UDALAITZ / 42

FINANTZA KRISIA Beste elefante bat gure gelan: kredituaren gailurra. URKO APAOLAZA / 46

BERO-BEROAN JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ARRITXU IRIBAR

Kirol apalen ahotsa
duzu irratan.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Dani Blanco



“Ezin dut defendatu kirolak prentsan tarte zabalegia dueneko teoria”

Kokatzen hasteko: kirolean aritua, aditua edo adiktua?

Aditua inondik ere ez. Ezta aritua ere, baina gustatzen zait eta asko jarraitu dut. Batez ere adiktua, hortaz.

Aitzindaria ere bai, gizonena eskusiboki zen mundu batean.

Ondo hartu ninduten, hala ere. Dena den, emakumezkoak gaia menperatzen duela erakutsi behar zuen, eta gizonen bidezko gaitasunarekin jaiotzen dela ematen zuen. Normala zen gizon bati kirola gustatzea, ez hainbeste emakumeari.

Epelak entzuten dira halakoetan...

Entzungor egin izan dut. Inporta zaizkidan kritikak lanari lotutakoak dira, zerbait gaizki esan, hanka sartzeren bat egin, hizkuntza traketak erabili... Besteak, bost axola.

Sakrifizioa, konstantzia, burugogorkeria imajinatzen dizkizut, kirolarien babalorak.

Kiroleko balore onak gustatzen zaizkit gehien. Gizartearen beste ataletan erabiliko balira, seguru nago mundu hobean biziko ginatekeela.

Oraintxe hasi naiz deskubritzen kirolaren grazia!

Gaizkitzea, zailtasunei aurre egitea; bakarka edo taldean helburu bat lortzea edo marka bat gaizkitzea; lan egin, sakrifikatu eta nahi duzuna lortzea, eta ez baduzu lortzen, duzun guztia eman eta egindakoarekin gustura gelditzea. Ez al da hori bizitza?

Bizitza ez dakit; anestesia eraginkorra bai, alafede.

Arazoak ezkutatzeke? Izan daiteke. Baina alde onak baditu: iritzi ezberdineko jendea elkar lezake, batasunerako lagungarri izan liteke, egoera triste eta gogorren aurrean ilusioa piztu lezake.

Ados, orduan ez dut ulertzen zergatik kirolak ez duen sarri prentsa onik...

Pena da kirolak hainbeste gauza on izan eta batzuetan notizia txarrei bakarrik erreparatzea.

... nahiz prentsan leku zabala –eta zabalegia– izan.

Niretzat gutxitxo. Futbolak leku asko hartzen du, baina kirol asko dago prentsan leku eskasa duena, edo lekuri ez duena. Ezin dut defendatu kirolak tarte zabalegia dueneko teoria.

Zure kirolak sarri txikiak baitira: kirol ekologia egiten duzu zuk.

Ez nahita. Futbola adina kirol da arrauna, ziklismoa, hockeya, piraguismoa, borroka. Edozein kirol.

Ramon Etxezarretarekin liburu bat idaztea, esate batera?

Marino Lejarretari buruzko liburua idatzi nuen Ramonekin. Esperientzia aberasgarria izan zen. Harro nago. ■



Merkatu legeen menpeko irtenbide faltsuak

Mundu honetako lurren herena estaltzen duten basoek gizakion erasoak jasan behar izan dute azken mendeetan. Orain, mehatxu berriak ari zaizkie gehitzen aurrez zeudenei. Nazio Batuen Erakundeak, deforestazioari aurre egiteko eta karbono emisioak gutxitzeko xedez, REDD estrategia jarri nahi du abian, baina ingurumen arloko GKE askok ohartarazi du hori ez dela benetako irtenbidea, eta gainera kalte ugari eragingo diela basoetako biztanleei.

| UNAI BREA |

PLANETA HONETAKO bizidunontzat, basoak funtsezko ekosistema dira. Klima erregulatzen dute, biodibertsitate gordailu dira eta urez hornitzen gaituzte, besteak beste. Elikagai iturria ere badira, eta gizakiok, gainera, jateko ez ezik beste hainbat gauzatarako erabiltzen ditugu basoetako landareak: egurra lortzeko, sendagaiak egiteko... WRM elkarteko (Baso Tro-

pikalen Aldeko Mundu Mugimendua) Teresa Pérezek gogorarazi duenez, milioika pertsona bizi dira basoetan, edota basoari esker. NBERen Batzar Nagusiak Basoen Nazioarteko Urte izendatu zuen 2011, eta horren kariatara plazaratutako datuen arabera, 300 milioi lagun bizi dira munduko oihanetan, Hegoalde globaleko herrialdeetan batik bat, eta orotara



ALEXANDER LEES


BASOAK

1.600 milioi lagunek ateratzen dute bizimodua oihan horietatik. “Basoak babes-tea ezinbestekoa da pertsona horien interesak defendatzeko”, dio Pérezek, “baina komunitate horiek ez dituzte bermatuta beren eskubideak basoekiko. Gobernuentzat, eta basoetan interes ekonomikoak dauzkatenentzat, milaka urtez hor bizi izan direnak kanporatu beharreko arrotzak dira. Haiei egotzi nahi diete deforestazioaren errua, argi dagoen arren arrazoiak beste batzuk direla”. Esperientziak erakusten du, dio Pérezek, bertakoen eskubideak errespetatu diren lekuetan gor de dela ondoen oihana.

Egurraren industria eta meatzaritza dira, WRMko kidearen berbetan, basoen galeraren erantzule nagusiak. FAOk (Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundea) egindako txosten batek dio 2000 eta 2010 urteen artean 130 milioi hektarea baso galdu zirela munduan. Frantziako Estatuaren edo Espainiakoaren gainazalaren hiru halako baino zerbait gutxiago. Galera handienak Hego Amerikan eta Afrikan gertatu ziren. Aurreko hamarkadan, 1990etik 2000ra, are gainazal handiagoa galdu zen, 160 milioi hektarea. Basoaren atzerakada moteldu bada ere –eta berehala ikusiko dugu tentuz hartu beharreko datua dela hori–, kopuruak oso kezkarriak dira FAOren beraren esanetan.

Zer da basoa?

WRMren webgunean irakur dezakegu honakoa: “FAOk dioenez, 2000-2010 tartean baso



SCIENTIFIC FRONTLINE

Basoak berebiziko garrantzia du ur hornikuntzan. Argazkian, Amazonas oihana.

“Orain dela urte batzuk kanpaina abiatu genuen FAOk basoaren definizioa alda dezan. Haienez, zuhaitzen monolaborantza sailak ere basoak dira. Horrek deforestazio estatistikak zurrizten ditu, baina sail horiek ez dituzte betetzen benetako basoaren funtzio ekologikoak”

Teresa Pérez, WRMko kidea

galera txikiagoa izan zen landatutako baso kopuruak gora egin zuelako. Landatutako zuhaitz sailak munduko baso guztien %7 dira”. Baina WRM ez dago ados FAOk erabiltzen duen basoaren definizioarekin, Teresa Pérezek azaldu digunez: “Orain dela urte batzuk kanpaina bat abiatu genuen FAOk bere definizioa alda dezan. Haienez, zuhaitzen monolaborantza sailak ere basoak dira, eta horrek hobetu egiten ditu deforestazioari buruzko estatistikak. Baina monolaborantza eremuak ez dira basoak, ez dituzte betetzen basoen funtzio ekologikoak”. Aitzitik, arazoak sortzen dituzte, Pérezen iritziz. Batetik, biodibertsitate galera eragiten dute; bestetik, ur kontsumitzaile handiak dira, eta benetako basoa, aldiz, ur hornitzailea da. Horrez gain, monolaborantza eremu

bat jabetza pribatua da. Halako bat landatzeko asmoz lurra erosten duenak aurrez bertan bizi zirenak bota ditzake, eta izan ere halaxe gertatzen ari da munduko leku askotan.

Zuhaitz landaketak mundu osoan areagotzen ari dira, eta deforestazio datuak zurrizten dituzte. Esate baterako, monolaborantza sailak kontuan hartuz gero, azken urteotan AEB eta Europako baso gainazala handitu egin da, Ekologistak Martxaneko Jaume Grauk dioskunez. Alta, WRMk adierazitako irizpideei jaramon eginez gero, zuhaitz monolaborantza bera da deforestazioaren eragileetako bat. Izan ere, batzuetan oinarritzko basoa –aipatutako funtzio ekologiko guztiak betetzen dituen– erauzten da haren lekuan landaketa egiteko. Helburuak egurra, papera eta, azken urteotan batez ere, bioerregaiak eskuratzea da.

REDD estrategia

Azken urteetan, basoen kontserbazioaren arazoa klima aldatetarekin lotu izan da. Hainbat arrazoi daude horretarako. Jaume Grauk azaldu digunez, karbono dioxido emisioen zergatietako bat –emisio guztien heren bat gutira– deforestazioa da. Lehenik eta behin, deforestazioaren bitarteketako bat basoa erretzea delako. Bestetik, zuhaitzak desagertzean eguratseko CO₂-a atzemateari uzten diotela-



Egurra eskuratzea da oraindik baso sailak desagertzearen arrazoi nagusia, baina azken urteetan indarra hartzen ari dira beste batzuk.

ko. Eta hirugarrenik, zoruan milaka urtetan pilatutako CO₂-ak errazago ihes egiten duela-ko atmosferara zoru horrek basoak ematen dion egonkortasuna galdu eta gero.

2005ean aipatu zen lehen aldiz, Klima alaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan, REDD estrategia. Siglen esanahia hau da: deforestazioak eta basoen degradazioak eragindako emisioen gutxitzea.

Hiru urte geroago, hasierako ideari beste helburu batzuk erantsi zitzaizkion: kontserbazioa, erabilpen jasangarria eta basoetako karbono erreserben handitzea. Harrezkeroztik, REDD+ siglak erabiltzen dira estrategia izendatzeko. Momentu honetan ehunka proiektu pilotu daude martxan munduan, denak edo ia denak herrialde tropikaletan, eta epe zehatzik adierazi ez bada ere, espero da



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

REDDen adibide bat: Kongo

WRM ELKARTEAK REDD estrategiaren proiektu pilotu biren berri eman zuen 2011ko abuztuan argitaratutako butelinean. Horietako bat Kongoko Errepublika Demokratikoan dago abian, zehazki, Tayna eta Kisimba-Ikobo erreserba naturaletan. Conservation International (CI) GKEa da proiektuaren sustatzailea, Walt Disney konpainiak emandako finantzazioarekin. Zazpi milioi dolar, guztira. Diru guztia ez dago kio Kongoko proiektuari, ordea, Peruko zenbait baso babestea ere akordioaren barruan baitago. 500.000 hektarea baso kontserbatzea da helburua. Horrela, ustez, 900.000 CO₂ tona emititzea galaraziko litzateke.

Internetez lortu zitekeen informazioa urriegia zelakoan, WRMko zenbait kide Kongora joan ziren, egitasmoaren nondik norakoak

bertatik bertara behatzeko asmoz. Teresa Pérezek gogoratzen duenez, bertakoek ezer gutxi zekiten REDD estrategiaz. “Hitz eman zieten diruarekin eskolak, osasun zentroak eta abar eraikiko zizkietela, baina momentuz ez da horrelakorik gauzatu. Gauzatu den bakarra da ehizarako, landareak biltzeko... lehen sartzen ziren lekuetara sartzeko debekua”. 2009an sinatu zuten akordioa CIk eta Walt Disneyk, baina proiektuaren inpaktua neurtzeko zegoen WRMk bere butelina argitaratu zuenean, horregatik ez zen dirurik inon ageri. Neurketak egiten ez diren bitartean, ez dago ordainketarik. Lehen emaitzak aurten edukitzea espero zuten.

Proiektuaren sustatzaileak bertakoak “sentsibilizatzeari” ekin zioten hasiera-hasieratik. Alegia, basoa kontserbatzearen garrantzia

ikusarazi nahi zieten, hark gordetzen duen karbonoa dela eta. Bertako buruzagi bik sinatutako agiri batek frogatzen ei zuen bertako komunitateek alde aurretik emana ziotela onespenera egitasmoari, baina WRMkoek ikusi ahal izan zuten, onespenera hori ez zen hain erabatekoa. Izan ere, buruzagi bi horiek talde askoren iritzia kontuan hartu gabe sinatu zuten onespenera. Hala, eskualdeko biztanle ugari aurka agertu dira, REDDen proiektuak beren betiko lur eta basoekiko eskubideak kentzen dizkie eta. Gainera, gardentasun falta salatu dute: bertako inork ez dauka CI eta Walt Disneyren arteko akordioak diotenaren berri zehatzik. Sustatzaileak entzungor agertu dira aldarrikapen horien aurrean, eta ez dute inolako pausorik eman gatazka konpontzeko, WRMren esanetan.

oso epe laburrean REDD+ ofizialki abian jartzea. Emisioak gutxitzea eta deforestazioa geldiaraztea helburu txalogarriak dira, baina elkarte ekologista askok uste dute REDDek mesede baino kalte gehiago egingo duela, abiapuntu okerra baitu. Ekonomia ardatz daukan abiapuntua, salatu dutenez.

WRMk bere agerkariaren zenbaki oso bat eskaini zion REDDi, iazko abuztuan. Bertan, kritika zorrotza egiten dio estrategiari. *Los pecados del enfoque REDD+* (REDD+ ikuspuntuaren bekatuak) artikuluan dioteenez, deforestazioak askoz eragin txikiagoa dauka klima aldaketan erregai fosilen errekontzak baino, eta gainera, oso eragin desberdina da. “Deforestazioak askatzen duen karbonoa eta erregai fosilek askatutakoa maila berean jartzea premisa faltsua da, klima aldaketaren arrazoi nagusia erregai fosilen konbustioaren gorakada baita. Milioika urtez lur azpian pilatuta egon den eta landareen ziklo naturalean parte hartzen ez duen karbono horrek eragin du berokuntza globala. Deforestazioaren emisioak galarazteak erregai fosilen emisioak konpentsatu ditzakeela esatea gezurrezko argudioa erabiltzea da. REDD karbono iturri bakarrak arduratzen da, bigarren mailako iturria dena gainera, eta ez die heltzen deforestazioaren sakoneko arrazoiei”.

REDD+ estrategiako proiektuek neurketa konplexuak behar dituzte, baso batek zenbat karbono gordetzen duen zehazte aldera. Aurreikusten denez, dirua ordainduko da baso hori kontserbatzearen truke, baina Teresa Pérezek salatu du ez dagoela garbi diruaren mugimenduak nondik norainokoak izango diren. “Ustez, eta hori da REDDen alde erabiltzen den argudioetako bat, basoan bizi diren komunitate pobreek dirua eskuratu ahal izango dute baso hori kontserbatzeagatik, baina egiazki oso zaila izango da talde horiek dirurik lortzea, besteak beste basoko karbono kopurua neurtzea oso zaila delako, eta lan hori nekez egin ahal izango dute bertako komunitateek. Aldiz, Mendebaldeko enpresak izango dira horretaz arduratuko direnak”. Horrek dakarren arazoa da enpresa horiek basoaren jabetza eskuratuko dutela aurrean. Dagoeneko REDDen zenbait proiektu pilo-

Dagoeneko, REDDen zenbait proiektu pilotuk erakutsi dute ondorio negargarriak dituztela basoetako biztanleentzat, euren betiko bizimodua egitea eragozten baitaie



tutan behatu denez –ikus goiko koadroa–, ondorioa negargarria da basoetako biztanleentzat, kontserbazioaren aitzakiarekin euren betiko bizimodua egitea eragozten baitaie.

Basoak pribatizatzeko bidean

Gaur egun, munduko basoen %80 jabetza publikokoak dira, baina REDD bezalako estrategia batek pribatizazioa areagotu dezake. Ekologistak Martxaneko Jaume Grauk ohartarazi digunez, “proiektuetarako diru funtsak borondatearen arabekoak dira. Nork ipiniko ditu sosak? Mendebaldeko gobernuek, dagoen krisiarekin? Ez, enpresek ipiniko dute, baina trukean zerbait irabaztekoan, bestela ez. Besteak beste, Hegoaldean baso bat kontserbatzearen truke Iparraldean karbonoa emititzen jarraitu ahal izango dute, batak bestea berdintzen duelakoan”.


FAOk basotzat jo arren, uhaitzen monolaborantzak ez ditu betetzen benetako basoaren funtzio ekologikoak. Argazkian, olio-palmondo sail bat, Indonesian. Asiako herrialde horretan izugarritzko atzerakada bizi du bertako jatorrizko oihanak, laborantza intentsiboren mesedetan.

Testuinguru berriak, arazoa moteldu beharrean, handitu egiten ditu Teresa Pérez- en iritziz: “Ekonomia berdea kontzeptu berriaren ardatzetako bat basoak izango dira. Basoaren funtzio guztiak merkatugai bihurtu badaitezke, mehatxu berriak gehituko zaizkie dagoeneko existitzen direnei. Baliteke, esaterako, etorkizun ez oso urrunean basoak pribatu bihurtzea bertan dagoen ura merkaturatu ahal izateko”. WRMkoaren ustez, lehentasunezkoa da basoetan bizi direnen eskubideak bermatzea. “Haiei esker gorde da oraindik daukaguna, eta haiek eduki behar lukete basoaren jabetza eta kontrola”. Hori litzateke Pérez- en ustez basoen mesederako hartu beharreko lehen neurria, pribatizazio mekanismoak albo batera utzita. Momentuz, ordea, merkatuaren oihana gailentzen ari da. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



PERTSONAIA

JESUS LASAGA

«Euskaldunak ez du segidarik Puerto Ricon»

Amerikara joan zen, misiolari, eta arimak kristautu zituen, nonbait, noizbait. Puerto Ricon bizi delarik, ez du arrakastarik izan gure izena daramatenak euskalduntzen. “Jaioko dira berriak!”. Bai ote?

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



Hamazazpi urte dira kongresu hartatik: Euskal Gizataldeen I. Mundu Biltzarra. Puerto Ricoren izenean, hiru lagun: Jose Errasti, iaz hila; Javier Arzuaga, "Cheren kapilaua" –AEBetan oraintxe–; eta zu zeu. Oñatiarra Arzuaga, aramaioarrak Errasti zena eta zu. Frantziskotarra izana hura, pasiotarrak zuek. Ameriketara fraide joanak hirurok. Euskara kamustua hirurok...

Lehenengo, guk ez genuen euskaraz batere ikasi. Ez Errastik, ez nik. Ez genuen euskararen gramatikarik ikasi. Apaiztu berritan, 24 urte genituenean, Amerikara joan ginen. Ni, 1958an. Errasti eta Arzuaga hiru bat urte lehenago. Badiotsut, guk ez genuen euskara estudiatu, behin ere. Umetan ikasitako euskara baino ez genekien, etxean jaso genuena, baina osterantzean, gure ikasketak egiten ari ginela, batere ez. Ahaztu egin dugula euskara? Estudiatu ere ez genuen inoiz egin!

Berba egin ere ez fraideen artean, ikasketak egiten ari zinetela.

Ez, gure komunitatean, erdia baino gehiago erdaldunak ziren. Kolegiora sartu ginen eta dena zen gaztelaniaz: irakaskuntza, elkar hizketak, otoitz-errezoak... Dena. Euskara astiro-astiro galtzea, normala... 10-11 urte nituela joan nintzen Gabiriara, pasiotarren kolegiara. Atera kontuak, Aramaion, Iturralde baserrian, bederatzi seme-alaba ginen; txikiena ni. 2 urte nituela aita hil zuten 1936ko irailean, Gerra Zibileko krimenen biktimak. Jaio nintzeneko, anaia bigarrena jesuita zen Belgikan. Ondoko hiru arrebak moja sartuak ziren. Beste anaia bat pasiotarra nuen. Gogorutzen naiz anaia hura ikustera eraman izan nindutela Gabiriara, bisitan, eta frontoia ikusi nuen. Frontoia ikustea gauza handia zitzaigun! Gure amarentzat, berriz, handia zen semea apaiz ikustea, edo fraide. Iturralden ez zen dirurik, eta kolegioa pagatu beharra zegoen zerbait. Horretan, osaba bi nituen apaiz, biblioteca ederrak zituzten biek, eta liburuen bidez pagatzen zituen gure amak nire ikasketak Gabirian. Gogoratzen naiz zelan etortzen zen gure ama, urtean behin edo birritan, maleta bete liburu zekarrela. Horrela pagatu zuten gure seminarioa!

NORTASUN AGIRIA

Jesus Lasaga (1934, Aramaio, Araba). 1957an apaiztu zenetik Amerikan egin du bizia. Puerto Ricon zen 1970ean sekularizatu zenean, hantxe hasi zen lanean, hantxe ezkondu eta familia hazi, hantxe ekin zion San Juan hiriburuko euskal etxeari. Puerto Ricoren buru eta ordezkari etorri izan da Euskal Herrira diasporaren biltzarretara, euskal etxearen sorrera eta nola-halako galera, biak bizi izan ditu. Zentzu handiko agertu zaigu beti, ezagutu dugun joan deneko hamazazpi urtean.

Euskararen belarria

"Kasik urtero etortzen naiz Euskal Herrira, etxeako ikusten, eta horrek belarri egiten laguntzen dit. Gainera, badira urte batzuk ETB ikusten ahal duguna Amerikan, eta horrek ere hainbat laguntzen dio belarriari. Eta beste gauza bat ere badago, nire kasuan behintzat: oso musikazalea izan naiz beti, txikitandik, kantatzea gustatzen zait, asko kantatzen dut, eta hiztegia gordetzen dut horrela. Urtero etortzen naizenean, atera diren disko berriak erosten ditut, entzuten ditut, eta ikasten ditut, batzuk. Horrela, konturatu gabe, eta hizkuntza beraren bila joan gabe, hizkuntza gordetzen dut, eta gure sasoian entzuten ez ziren berba berri asko ikasten ditut".

1945ean joan zinen Gabiriara. Bost urte han. Angoston, urtebeteko nobiziatua. Tafallan, bi urte Filosofia ikasten. Urretxun, lau urtez Teologia...

Eta azkeneko urtea, Deustun, Oratoria ikasten, sermoiak eta predikuak egiten. 1958an, Amerikara joateko prest nintzen. Santanderetik irten nintzen, abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, Reina del Mar itsasontzian. Hiru ginen pasiotarrak. Gurekin batera, Ekuadorreko Los Rios misiora zihoazen zortzi-hamarren bat apaiz. Denok sotanaz jantzita, goitik behera. Edo behetik gora! Kar, kar, kar. Ikusgarria zen! Gaur egun ergelkeria ematen du, baina gu benetako munduan sartzen ari ginen orduan, modernizatu gura genuen, baina sotana beltz haiek jantzita, eta berotzar hartan, ez genuen lepoko zuria abituaren gainetik ateratzea asmatu besterik. Eta egundokoa egin genuelakoan geunden. Kar, kar, kar.

Bizia egin zenuen Amerikan apaiz.

Bogotan, lehenengoan, sei urte. Beste urte batzuk, berriz, Kolonbian, batetik bestera misiolari, Jose Errastirekin. Mendietan barrena genbiltzan, zaldi gainean. Hura abentura, hura. Behin, gobernuko funtzionario batzuekin batera joan nintzen halako leku batera, herri moduko bat osatzera, eskola, polizi etxea eta bestelakoak ipinita. Zaldiz joan behar izan genuen hara, bi egunez, nondik nora genbiltzan batere ez genekiela, indioak gidari hartuta. Bigarren egunerako, porru eginda nengoen, mailatuta. Heldu ginen, astebetean osatu genuen herria, inguruan txaboletan bizi ziren indioak bertara batu, eta buelta. Misiolari. 1964an Puerto Ricora joan nintzen, eta handik sei urtera sekularizatu egin nintzen.

Sekularizatu eta gero?

Puerto Ricon sekularizatu nintzen, eta berton geratu. Emazte dudana ezagutu nuen, ezkondu nintzen, eta berton. Batzuek emakumea

ezagutzearekin lotzen dute sekularizatzea, baina ez da erabakigarria, oro har. Irten nintzen, eta bizitzeko borrokan murgildu nintzen. 38 urte nituen ordurako, eta lan egiteko garai onena joana zitzaidan. Estutasunik handiena lana inguratzea izan zitzaidan orduan. Zoria lagun izan nuen, dena den. Ez nuen agiri akademiko nahikorik. Gabiria ez zen unibertsitatea, eta Urretxu ere ez! Ez nuen unibertsitate mailako agiritik, nahiz eta balio-kidetzaren bat eman zidaten. Lana behar nuen, bizitzen hasi behar nuen 38 urtetan, sostengu ekonomikorik gabe.

Zenbat iraun zuen lana inguratu arteko estutasunak?

Hilabete, hilabete eta erdi. Gobernuaren departamentu batean inguratu nuen lehenengo lana: Giza Zerbitzuen atalean. Sekularizatu, deialdi bati erantzun eta lanean hasteko moduan nintzen hilabetera. Sasoi hartan boladan zegoen metadona programa, drogadiktoei laguntzeko, eta hartan eman zidaten lana. Hura bat zetorren nire prestakuntzarekin, behartsuei laguntzeko zera horretan. Gustura nengoen. Funtzionario publiko baten soldata agindu zidaten, handia ere ez, baina niri ona baino hobea zitzaidan. Lana onartu nuen, beraz, eta bizpahiru eguneko prestakuntza ikastaroa nuen zain. Horretan, fraide garaian ezagutu nuen abokatu bat etorri zitzaidan galdezka: “Zenbat irabaziko duzu gobernuo lanean?” “600 dolar!”. Soldata handia iruditzen zitzaidala esan dizut, baina abokatuak, aldiz: “Hori besterik ez?”, “niri ez zait gaizki iruditzen, 600 dolar!”. “Tira, guk bi halako emango dizugu. Eta gainera, gasolinatan gastatzeko laguntza”. “Hauek burutik zaudek!”, nik neure artean. Berarekin lan egin nezan gura zuen. “Zertan, ordea?”, “hilerri batean. Ireki berri da, oraindik ez dugu inor lurperatu berton. Gura duzu berton lan egin?”. “Hilerrian?” esan nion nik neure buruari. “Etorri bihar halako lekura eta esplikatuko dizugu dena”. Gobernuo lana seguru neukanez, abokatuak agindutako lekura joan nintzen hurrengo egunean, ea zer ote zen hilerri kontu hura.

Eta?

Joan nintzen eta, hantxe, hiru ordu, jan eta edanean hiru abokatu haiek. Zuzendaritza batzordea izan, nonbait. Haien zurruta! Amaieran, esan zidan batek: “Ez dakit jabetu zaren, baina gurekin lanean ari zara dagoeneko”, “ez, ez, ez zait interesatzen!” esaten hasi nintzen, alferrik. “Etorri bihar bulegora. Lehenengo hileko soldata aurreratuko dizut”. “Hara, benetan ari dituk!” nik neure buruari. Eta delako bulego hartan nintzen biharamu-

Gillermo Aizpurua, Habana

“1958ko abuztuaren 15ean irten ginen Santanderretik. Habanan eta Kolonbiako Cartagenan geratu eta irailaren 10 edo 12an heldu ginen Boliviara, lehen aldiz hegazkina hartuta. Kuban izan ginen berrogeita zortzi orduz, Batistak agintzen zuen garaian. Poliziak-eta ikusten ziren. Mugimendua. Giro arraroa, baina guretzat dena zen berri eta arraro orduan. Telebista ere Habanan ikusi genuen guk lehenbiziko aldiz! Eta jai-alai pilota partidak! Habana goitik behera korritu genuen han hartu gintuen azpeitiar batekin. Guillermo Aizpurua zen. Maleziaz esaten zigun: ‘Horixe da jinetera kalea’... Euskal etxera ere eraman gintuen. Oso ondo portatu zen gurekin Guillermo”.

nean, idazmahaian jarrita, zer egin behar nuen batere ez nekiela. “Zer egin behar dut, ordea?”, nik. “Trankil, ikasiko duzu”, eta han non etortzen zaidan idazkaria, gutun-azala eskuan, hileko soldata barruan.

Hilerrian lanean, baina ez zulogile, horratik.

Ez. Administrazioan, gerentzian egin dut lan. Buru izendatu ninduten, baina batere ez nekien kontabilitateaz, ez administrazioaz, ez salmentaz. Zoria lagun izan nuen beste behin. Salmenta departamentua osatu nuen, Kontabilitate atala, eta jende ona jarri nuen haietan, arduradun, nahiz eta neu izan denen buru. Horrela egin nuen, eta gauzak ondo irten ziren. Erretiroa hartu arte hilerrietan egin dut lan. Lehenengo hartan, Borinquen Memorial-en, hogeita bi urte. Orduan, hilerri berria egin gura zutela esanez etorri zitzaizkidan beste batzuk, eta haiekin joan nintzen. Azkenean, AEBetako konpainia bat etorri zen, erosi zituen Puerto Ricoko hilerriak eta hileta-zerbitzu gehienak –zazpi hilerri eta hemezortzi hileta-zerbitzu; Espainian ere baditu erosiak–, hots egin zidaten, zazpi hilerri haietako buru izan nendin, eta haiekin hartu nuen erretiroa.

Euskal etxea ere osatu zenuten San Juanen, Puerto Ricoko hiriburuan.

1994an. Lau urte lehenago hasita geunden bilerak, afariak eta zenbait ekitaldi egiten, baina 94an ezagutu gintuen ofizialki Eusko Jaurlaritzak. Kultur elkarteak ginen, irabazi asmorik gabekoa, Puerto Ricoko erregistroan ere izena emanda genuen. Garai hartan hasi zen euskal etxean mugimendua, gura baduzu, eta guk ere bagenekien zertan ari ziren bazterretan. Egitura osatu genuen, beraz, eta egitura osatuta, euskal etxean zerrendan sartzeko eskatu genuen. Onartu ziguten, eta laguntza eman ziguten. Etxe bat alokatu genuen, egoitza izateko, eta zazpi-zortzi urtean ondo iraun genuen euskal etxean. Urtean ekitaldi indartsu bat egiten genuen, aberri egunez. Urte batean, txistulari bi bidali zizkigun Jaurlaritzak, eta benetako festa egin genuen. Beste behin, txalaparta bidali zigun. Festa ederrak izan ziren.

Eta gero?

Zahartu egin ginen, eta gure seme-alabek, festa haietara etorrita ere, ez zuten eskurik hartzen, horretarako motibaziorik ere ez zuten. Azkenean, zuzendaritza aldatu zen, eta euskal etxeak indarra galdu zuen.

Hasieran esan dudanez, duela hamazazpi urte ezagutu zintudan: Euskal Gizataldeen I. Mundu Biltzarra, Gasteizen. Puerto Ricoren ordezkari,

Sekularizatu

“Batere heldutasunik gabe hartu genuen apaiz izateko erabakia, bizi guztiko erabakia, askatasunik eta ezaguerarik gabe. Bestalde, halako mundu batean lan egiteko erakutsi ziguten seminarioan eta, aldiz, handik irtenda ikusi genuena bestelako mundua zen, kontatu ziguten mundu hura ez zen erreala. Horrek, gura eta ez, kontraesana ekarri zuen gure barrura —ez ginen pozik, ez genuen gure bidea garbi ikusten—, eta hor, nork bere erabakia hartu zuen. Jakina, inguruan beste batzuek ere apaizgoa uzteko erabakia hartzeak lagundu zuen. Helduagoak ginen, erabakiak hartzeko bagenituen adina, askatasuna eta ezaguera”.

Jose Errasti, Javier Arzuaga eta zu zeu. Akabo da hura, eta euskal etxea San Juanekoa.

Baina ez da ofizialki desagertu. Nire ondotik etorri zen presidenteak ez zuen araudiak agintzen duena zuzen bete: hileko batzarra, ekitaldiak... Beraren ustez, bazkideek egin behar zuten lana, ez berak. Baina inork ez zuen ezer egiten, berak ere ez zuen batzarrik deitzen, ez zuzendaritza-batzorde aldaketarik... Badiotsut, hala ere, elkarteen erregistroan gaude Puerto Rico berton, irabazi asmorik gabeko elkarte gara, baina alferrik da, ez dago aktibitatearik. Zaharrak hiltzen, gazteek esku hartzen ez... Ez dago segidarik.

AEBetan behin eta berriz eta askotan entzunda: “Lehenengo belaunaldiko euskaldunak hiltzean, kito!”.

Ez dakit, bada. AEBetan izana naiz, Idahoko Boisen, bertoko Jaialdi festa handian. Han ikusi nuena besterik da. Lehenengo belaunaldiko euskaldunak benetan sentimendu bat transmititzen ari direla iruditu zitzaidan.



Ostatu hartu genuen hotelean berton, hango euskaldunen umeak ikusi genituen, euskal erara jantzita. Han euskal espiritua ikusi uste izan nuen ondoko belaunaldietan, eta hori ez dela erraz galduko. Geroari begira, bidea irekia dutela iruditu zitzaidan, horri segitu baino ez dutela egin behar.

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

**BIZKAIA
BIZIA**



Eta Puerto Ricon?

Puerto Ricon ez da horrelakorik, euskaldunak han ez du segidarik. Sasoi batean, aberri eguna ospatzen genuen, eta batzen gintuzten gauzak ziren: teknika, telebista. Jaurlaritzak ETB ikusi ahal izateko behar zen tresneria jarri zigun euskal etxean. Euskal telebista ikusi gura zuenak, euskal etxera joan beharra zuen derrigorrez. Aldizkariak bidaltzen zizkigun –berandu jasotzen ginen, baina interesgarri iruditzen zitzaizki-

AZKEN HITZA

Balorea

“Orain dela urte batzuk, aspaldiko apaiz lagun batekin egin nuen topo aireportuan. Berbetan ari ginen, eta berak:

–Apaizgoa uzteko balorerik ez nuen izan nik.

–Berton segitzeko balorerik ez nuen izan nik. Enpate gaude! –esan nion”.

gun era guztietara–, loturak genituen, alegia. Baina lehen teknikak elkarretaratzen gintuen bezala, urrunarazi egin gaitu orain: Internet bidez, nork bere etxean ikusi ahal du pilota partida, albisteak, edo dena delakoa. Lehen euskal etxera joan beharra genuen; aldiz, orain, etxeko txokoan berton

geratu eta segitzen dugu hemen-go mundua. Euskal etxearen beharrik ez... ■



gametxo
HOTELA



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

WROCLAW

Elkargunerako hiri

Donostiarekin batera, Poloniako Wroclaw hiria Europako Kultur Hiriburu izango da 2016an. Behe Silesia eskualdean, Polonia hego-mendebaldean, 650.000 biztanle inguru ditu Wroclawek. 112 zubik lotzen dituzte Odra ibaiko hamabi irlak eta Behe Silesiako Venezia ezizenez ezaguna da horregatik. Wroclaweko historia kontatzea Europa erdialdearen historia koloretsu eta mingarria kontatzea da, erregimen eta herrialde ezberdinen menpe, etnia eta kultura anitzen elkargune.

| JONMIKEL INTSAUSTI |

Testua eta argazkiak



IX. MENDEAN, Slezan tribu eslaviarra Ostrów Tumski guneko gotorleku batean egonkortu zen. Herria txekiar lurraldeari gehitu zitzaion gero, baina 990. urtera arte ez zen Poloniako lurralde izan, Piast dinastiako Mieszko I.a printzeak eskuratu zuenean. 1336an Piast

Wroclaweko Rynek edo Merkatu plaza, Udaletxea ikusten dela.

dinastiako azken printzea hil eta Silesiako Dukerria Bohemiakoari gehitu zitzaion. 1527an, Luis erregea oinordekorik utzi gabe gudan hil ostean, Habsburgotarren Fernando dukeak izendatu zuten errege, eta hiria Austriako Etxeko agintepera igaro zen. Baina



1741ean, Federiko II.a Handiak Behe Silesia konkistatu eta prusiarren esku geratu zen. 200 urtez, alemaniarren pean egon zen Wrocław, Breslau izenarekin bataiatua.

Bigarren Mundu Gerran suntsitua

Naziak 1933an agintera iritsi zirenean, hirian bizi ziren 20.000 bizilagun poloniarrei (judutarrekin batera) alde egiteko gonbitea luzatu zieten “adeitasunez”. Handik sei urtera, Bigarren Mundu Gerra piztu zen, alemanek Polonia okupatu zutenean. Breslauri biziki eragin zion gerrak: Errusiar Armada Gorria hiriaren ateetara hurbiltzen ari zelarik, 1945eko urtarrilaren 19an, Gauletier Hankek Breslau osorik ebakutzeko agindua eman zuen. Jendea trenetara edo bestelako garraiobidez eramateko biderik ez zegoenez, oinez ateratzeko agindu zuen. Garai hartan milioi bat lagun inguru bizi zen han, Alemaniatik etorritako errefuxiatu askorekin batera, eta otsailaren 8rako, dagoeneko 700.000 lagunek egin zuten ihes. Horietako 100.000 inguruk bizia galdu zuen bidean. 0 azpitik 16 graduko tenperaturetan, pertsonak eta animaliak akabatu zituen hotzak.

Hamalau asteko setioaren ondoren, sobietarren aurrean amore eman zuten alemaniarrek: Festung Breslau (Breslau Gotorlekua) izan zen Alemaniak utzitako azken hiria, 1945eko maiatzaren 6an. Gatazkan, Armada Gorriko 8.000 bat soldatu hil eta beste 55.000 zauritu ziren. Alemanek, gainera, hiriko eraikin ugari suntsitu zuten joan aurretik, nahiz eta prentsa naziak errusiarren bandalismoari egotzi sarraskia. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, Europan larrien suntsitutako hirietako bat zen Wrocław.

1945ean, Breslau oinez ebakutzeko agindua eman zute. 700.000 lagunek egin zuten ihes eta horietako 100.000 inguruk bizia galdu zuen bidean, hotzak akabatuta

1945eko uztail-abuztuan, garaileen nahiari jarraiki, Postdameko Konferentzian Polonia berriaren mugak erabaki eta sartalderantz 200 kilometro inguru mugitu zuten. Egun Lituania, Bielorrusia eta Ukrainiakoak diren lurak galdu eta Alemania ekialdekoak ziren lurak irabazi zituen. Halaxe itzuli zen Breslau, Wrocław izenarekin, poloniarren eskutara. Poloniaren zabalera %20 gutxiagotu

zen, eta muga lekualdatze horrek sei milioi lagun mugimendua eragin zuen. Gaur egun oraindik ere poloniar jatorriko biztanle asko bizi da orduan galdutako lur horietan.

Aldi berean, hirian bizi ziren alemanen lekualdatzea agindu zuten sobietarrek —ofizialki 1947ra arte iraun zuen lekualdatzeak—. Urte batetik bestera, 160.000 izatetik 67.000ra igaro zen kopurua. Eta alderantziz: 2.000 poloniar egotetik 150.000ra pasa ziren. 1945eko abuztu amaieran, alemanei hiria borondatez uzteko eskatzen zieten afixak agertu ziren Wrocławeko kaleetan. Britainiarren menpeko lurretara bidali zituzten, 1946ko abenduan britainiarrek aleman gehiago hartzeari uko egin zioten arte. Alemaniarren kontrako indarkeria eta bortxaketa ekintza ugari egin zituzten sobietar soldaduek.

Kultura anitzetako jendeak osatu zuen Wrocławeko biztanleria berria, hiria birpopulatzeko asmoz Lwów-etik (egun Ukrainiako Lviv), Wilno-tik (egun Lituaniako Vilnius) eta Poloniako Varsovia eta Poznań ingurutik etorri baitziren. %70 birrindurik zuen hiri arrotza aurkitu zuten. Era berean, Lwóweko unibertsitateko irakasle andana hurbildu zen, eta langile kualifikatuen faltak eraginda, langile



Ezker eskuin:
Rynek plaza,
1893an; Odra
ibaia, atzean
Tumski zubia
eta katedrala
dituela; Katin
estatua,
sobietarrek tiro
banaz hildako
22.000 zibil eta
ofizialen
omenez; eta
tranbia hiriko
kaleetan.



alemaniar trebatuak mantentzen saiatu zen poloniar patronala. Markatutako arroparekin bereizita, nagusiki jatekoaren truke egiten zuten lan alemanek. Finean, Babelko dorrearen antzekoa zen Wrocław, gerrak sakabana-tuta familiaren bila etxerako bidean handik igarotzen zen nazionalitate ugari-ko jendearen bizitoki.

Aldaketen aurrean, Poloniako Gobernuak baino azkarrago erreakzionatu zuen Eliza katolikoa. 1945eko abuztuan, Poloniaren eta Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunaren arteko ituna sinatu baino lau egun lehenago, eta Vatikanoren laguntzaz, Poloniako primatu August Hlond kardinala iritsi eta Alemaniako elizjendeari jakinarazi zion diozesiaren administrazioa bere gain hartuko zuela. Hilaren amaierarako, Karol Milik apaiza diozesi poloniarren administrazioaile izendatu zuten.

1949an, agintariek Wrocław suntsitzeko eraiste prozesu planifikatua jarri zuten inda-

1949an, agintariek Wrocław suntsitzeko eraiste prozesu planifikatua jarri zuten indarrean, haren izaera germaniarra ezabatzearen

rrean, haren izaera germaniarra ezabatzearen. Ofizialki egitasmoa zen bertako adreiluak biltzea eta berrerabiltzeko asmoz Varsoviara eta beste hainbat hiritako eraikin guzietara igortzea. Baina hondakin horien guztien artean, Wrocławeko biztanle berriek

izaera poloniarra indartzen zuten eliza eta eraikin publikoak berrerabiltzeko ekin zioten. 1946an sortutako Berrerabiltze Orokorraren Bulegoa zuten horretarako.

Kultur berpizkundea

Gerra osteko garaietan, bizilagunen ekimen sutsuz, kultur eskaintza biziki handitu zen. Benetako pizkundea, dena den, 1960ko hamarkadan jazo zen, eta modako hiri bihurtu zen Wrocław. 1966an ospatu zuten lehen aldiz Wroclavia Cantans jaialdia, gaur egun oraindik ere martxan dena.

Liskarrak, hala ere, ez ziren amaitu. Alemanen aurka egindako Armia Krajowa Herri Armadaren gisako taldeek agintari komunis-

NEVERMIND TRIO
Be

JORGE ABADÍAS
A Tablero

JUAN DE DIEGO "TRAKAS"
Erbestea

JERÓNIMO MARTÍN SEXTETO
Quinoa

HASIER OLEAGA
Cantus Caterva

ERRABAL JAZZ

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabajazz.com

WWW.HOTSAK.COM



Joan Paulo II.a Aita Santu poloniarra erlijio-agintari bat baino gehiago izan da han. Ezkerrean, Wroclawko argazkia, Joan Paulo II.a hil zenean. Goian, Europar Batasunean sartzearen aldeko manifestazioa, hiriko kaleetan.

ten jazarpena pairatu zuten, eta judutarrak Poloniako hiri nagusietatik bota zituzten, tartean Wroclawetik, 1968an Israelgo Estatuak sortzearekin bat. Ondorioz, ordura arte biztanleriaren bigarren talde jendetsuena izan arren (20.000 bat lagun), kopuruak izugarri egin zuen behera.

1980an, Solidarność (Elkartasuna) sindikatuaren hastapenetan, Wroclaw makro-erregio indartsu baten bihotz bilakatu zen, eta Poloniako gainerako tokietan bezalatsu, tankeek bertako kaleak hartu zituzten, 1981eko abenduan. Solidarnośćeko 400 buruzagi atzeman zituzten eta Jaruzelski jeneralak gerra egoera ezarri zuen, 1983ko uztailaren 22ra arte iraun zuena.

Elizak erregimen komunistaren aurkako sostengua eman zion herriari, eta buru erlijioso baten rola baino boteretsuagoa izan zuen Joan Paulo II.a Aita Santuak. 1982ko uztailan, esaterako, Wroclaw bisitatu zuen Poloniara egindako bigarren bisitan eta atari zabalera 700.000 entzule gogotsurentzako meza eman zuen. 1997ko maiatzaren bueltatu zen bertara, diskurtso askoz ekumenikoagoarekin.

Gertakari aipagarrien artean, ezin ahaztu 1997ko uztailaren Odra ibaiak gainezka egin zuela. Uholde handia jasan zuen Wroclaw

Ehunka milaka lagunen lekualdatzeak sortutako zauriek sendatu gabe jarraitzen dute oraindik, eta hainbat alemaniar arbasoen Breslauko etxeak berreskuratzen saiatu da

wek eta unerik larrienen urak bederatzi metroko garaiera hartu zuen. Ostrów Tumski uhartea salbatzeko ahaleginak egin ziren, baina hiriaren ia heren bat ur azpian geratu zen eta jendea, etxe barruan inkomunikaturik. Jatekoa eta edatekoa helikopteroz banatu behar izan zen.

Wroclaw XXI. mendean

Gaur, industria eta ekonomia arloetan eragin handiena duen hiria da Polonian, Varsoviaren atzetik. Bertan egoitza dute Europako eta

munduko multinazional nagusiak. Kulturen ere, ez dira gutxi antolatzen dituzten egitasmoak, Aktore Abeslarien Jaialdia, Antzerki Irekiko Nazioarteko Jaialdia, Katedralaren Irlako Gauak edota Nazioarteko Marrakzi Hiru Urtekoa lekuko.

Egia da baita ere, ehunka milaka lagunen lekualdatzeak sortutako zauriek sendatu gabe jarraitzen dutela oraindik, eta

hainbat alemaniar arbasoen Breslauko etxeak berreskuratzen saiatu dela. Baina iragan alemaniarra bere egiteko gai izan da Wroclaw, izena eta izan indartuz. *Miasto spotkan* da hiriaren lema, "Elkargunerako hiri". Behe Silesiako Veneziaren historiari eta orainari erreparatuta, lema aproposa, dudarik gabe. ■



Wroclawi buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, erreportaje osatua igo dugu webgunera.





DANI BLANCO

**Mikel
Zurbano**



EKONOMILARIA

Europako Banku Zentrala: krisiaren giltza bere esku

KRISI HAU ulertzen duenik ez dago, dio herritar arruntak politikak ekonomiari erakusten dion menpekotasunari nolabaiteko erantzuna eman nahian. Bada, zenbait ekonomialari kritikok Europako hegoaldean indarrean dagoen krisia, 1992an diru eta ekonomi batasunaren hitzarmena Maastricht-en sinatu ostean aurreikusi egin zuten, era batean edo bestean. Ekonomi batasunaren diseinua bera da euroguneko herrialdeek ekonomi asalduren aurrean erantzun politiko efektiboki emateko zailtasunen iturburua. Diru batasunarekin herrialdeek ez dute diru politikaren tresna eskuartean Europako Banku Zentralak (EBZ) baizik. Hain zuzen, diseinu liberal haren ikurra Europako Banku Zentrala izan zen, botere politikoarekiko erakunde “autonomo” gisa egituratu zen eta bere profilak Alemaniako Bundesbank-ena errepikatu zuen, inflazioaren aurkako borroka helburu bakartzat hartuta.

titzearen zergatia ez da espekulazioa, ez harritzeko tamainan behintzat hori baita merkatuetako legea. Espainiako estatuko eta euroguneko gainerako estatuetako zor publikoen interesen kostua EBZk determinatzen du eta bera da gaur egun herri periferikoetako zor publikoaren gehiegizko finantzazio kostuaren erantzule nagusia. Horregatik antzua da defizit publikoaren maila behin eta berriz ere mugatzeko saioan tematzea krisialdian bete betean gauden honetan. Zor publikoaren interesak –arisku sari ospetsua alegia– jaisteko austeritate neurriak eta murrizketak etengabe bultzatzeak ez du ez hanka ez bururik krisia atzean uzteko ahalegin serioa egin nahi bada.

Europako eta, batez ere, Alemaniako finantza lobby indartsuen gordelekua da EBZ, bere izaera “autonomoa”, zuzendaritzaren osaketa –Draghi ikur dela– eta EBko ekonomiaren gidaritza izatea horren isla dira. EBZk ez du Espainiako Estatuko eta Italiako zor publikoa erosten bertako gobernuak presionatu nahi dituelako gizartean oso eztabaidatuak eta bere barne lobbyen interesetarako onuragarriak diren neurriak har ditzaten. Egile batzuk “estatu kolpe liberala” izendatu duten egoerarako agenda ezarri nahi dute oso osorik. Horregatik, EBZk finantza erakunde pribatuei bilioi bat euroko mailleguak bideratu dizkie –%1eko interes tasarekin– inolako baldintzarik ezarri gabe eta, aldiz, zor publikoa erosteko austeritate neurri gogorrak betetzera behartzen ditu estatuak. Bundesbank-ek babesten duen muturreko austeritateak finantza eta higiezin burbuilek eragindako suntsiketa irtenbiderik gabeko maila ikaragarria ekarri du: hark eragindako langabezia, defizita eta finantza arazoak biderkatu egin ditu bi urteren buruan euroguneko herrialde periferikoetan. Espainiako Estatuaren eta Italiaren erreskateek egoera larriagotu egingo dute. Hasieran erraz kudea zitekeen krisia mehatxua da gaur egun euroarentzat berarentzat. EBZk du epe laburreko giltza, hori ulertzeko gauza bagara bederen. ■



Espainiako estatuko eta euroguneko gainerako estatuetako zor publikoen interesen kostua EBZk determinatzen du eta bera da gaur egun herri periferikoetako zor publikoaren gehiegizko finantzazio kostuaren erantzule nagusia

Jakina da Europako estatu periferikoetako zorraren finantzazioa oso larria dena. Zor publikoa finantzatzeko edozein estatuk –zor publiko erraldoia duen Erresuma Batuak, adibidez– bere banku zentralari eskatzen dio maileguz, mailegu horren finantzazio merkea izanik urteen poderioz ahitu egiten da (inflazioaren eta errentaren hazkundearen eraginez nagusiki). Eurogunean hori zuzenean egiterik ez dago baina bai zeharka eta horrela egin izan du EBZak –Irlanda eta Portugalen zorrarekin duela urte bete– berak baitu dirua mugagabe jaulkitzeko ahalmena. Zorraren merkatu horietako eragileak ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatzen dira maileguz uztearen truke. Haatik, Espainiako zor publikoaren finantzazioa ikaragarri gares-



Jon Torner

♦ ARGIA.COM-EKO ERREDAKTOREA

Ozonoa benetan dopin?

EGIA DA, errendimendua hobetze aldera kirolari batzuek odolean ozonoa injeztatzen dute, halere, horrek ez die inolako ekarpen milagrosorik egiten, ikerketek diotenez. Egia da ere, kirolariak zigorra jaso dezakeela ozonoa injeztatzeagatik, baina ez justu gorputzean produktua sartu duelako, odola atera eta berriz injektatu duelako baizik. Alegia, ozonoa berez ez da produktu dopatzailea, odol auto-transfusioa legez kanpoko ekintza da.

Poliziak Di Gregorio txirrindularia atxilotu zuen Tourrean. Ozonoa injektatu zuen odolean, lurra erradiazio-ultramoreetatik babesten duen gas ezaguna. Odola atera, ozonoarekin nahastu eta berriro barrura. Erraza. Detektatzeko baina, oso zaila, efektuak berehala desagertzen baitira. “EPOa injeztatzen duen jendeak gauza bera bilatzen du, globulu gorrien kopurua handituz, efektuak bizpahiru hilabetera desagertzen dira ordea”, zioen Bartzelonako dopinaren aurkako laborategiko Jordi Segura zuzendariak *La Vanguardian*. Honen hitzetan, ozonoa (O₃) oxigeno (O₂) bilakatzen da eta biderkatzen da odolean, muskuluak hobe oxigenatzen lagunduz. Ozonoak ez du globulu gorrien kopurua handitzen, halere. Segurak dio ozonoa detektatzeko teknikak ez daudela perfekzionaturik eta kirolaria harrapatzeko beharrezkoa dela “zeharkako bide bat” egotea (txibatazo bat). Di Gregorio naturopata batek salatu zuen. 2008an medikuntzaren jarduera ilegalagatik kondenatu zuten berak aitortu zuen lau ziklistari egin zizkiela odol transfusioak.

Moises Garcia ikertzaileak ozonoa injektatzea alferrikakoa

dela dio: “Kirolari batzuk dopatzea ulertzen dut, baina ezertarako balio ez duen sasiterapia erabiltzea... Ozonoterapiak ez du ezertarako balio eta arriskutsua da ozonoaren botere oxidatzaileak globulu gorriak kaltetzen dituelako”. Di Gregoriori ozonoa injektatzeak soilik balio izan dio Tourretik kanporatua izateko.

Jacks Dallet fiskalak “ez gara produktu dopatzaile batez ari, metodo dopatzaileez baizik” esan du. Argi du ozonoak ez duela dopatzen, auto-transfusioa “metodo dopatzaile” gisa definitu du, Garciak azpimarratu duenez. “Ozonoa administratu zion naturopata, kirolari bati debekatutako substantzia emateagatik eta medikuntzaren jarduera ilegalagatik akusatuko dute”, dio ikertzaileak: “Ozonoa administratzea ez da medikuntza, tontakaria arriskutsua baizik”.

La Vanguardia arentzat ere badu mezua, “burugabekeria” hau dopinaren jainko berri gisa aurkeztu baitu: “Ez da harritzekoa ezin daitekeela detektatu esatea, ez baitu ezer egiten. Albisteak lortu du jendeari sinestaraztea benetan funtzionatzen duela. Ez dut ulertzen ordea, AMAk (Dopinaren aurkako Nazioarteko Agentziak) zergatik galtzen dituen denbora eta dirua mesederik egiten ez duen zerbait detektatzen. Gai dopatzaileen artean sartuko al dituzte ere Bach loreak?”.

Baliteke ezertarako balio ez izatea, baina hedabideek-eta zein tratamendu ematen dioten ikusita, ez litzateke harritzekoa geroz eta jende gehiagok ozonoa injektatzea kirol errendimendua hobetzeko. ■



BERTSO BERRIAK

Hauteskundeei jarriak



DANI BLANCO

Jexux Mari Irazu



Doinua: Esplikatzera noa kontuak.

Eta urriak hogeita bata
izango da azkenean
justu hogeiairen biharamunez,
urtebete joan denean
Diferentzia gutxi Dallasen,
edo Ajuria Enean
orduan bezain urruti eta,
Madrilerako trenean.

Buruz buruko bi hautagaiek
eurekin poz hainbat neke
patrikak hustu xamarrek eta
lana berriz galtza bete
elkar jan ordez elkarlan dosi
bana, nahiz ez egon merke
botika hori Euskal Herrian
bitan ordaindu liteke.

Iraila eta urria beti
oso elkarren gertuko
neurri gabeko estutualdia
udara pasa orduko
gainera etor dakigukeenaz
ez ote gara lehertuko...
Uff! Donostian behintzat ez gaitu
zenenak harrapatuko. ■



Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA ♦



DANI BLANCO

Pussy Riot askatu!

OTSAILAREN 21EAN aurpegia estalita zuten bost neska Eliza Ortodoxo batean sartu ziren Andre Mariari punk doinuaz Putin boteretik bidaltzeko eskatzeko. Hori dela eta, ustezko hiru taldekide atxilotu eta bi urteko kartzela zigorra ezarri diete Errusian. Hori da azken hilabeteetan hain famatu egin diren Pussy Rioten kasua. Tamalez, emakume errusiar hauek azken egikari honek egin ditu hain famatu eta haien inguruko hainbat elkarrizketa, erreportaje eta notizia irakurri eta ikusi ahal izan ditugu. Ez hori bakarrik, sare sozialak Pussy Rioten askatasuna eskatzen duten hainbat ekimen, argazki eta aldarriz ere bete dira. Bueno, eta Madonna eta Red Hot Chili Peppers eta Kasparov eta Amnistia Internazionala... ere alde izan dituzte.

Nik taldea lehenago ere ezagutzen nuen, beste hainbat ekintza egin baitutuzte azken honez gain. Ezagutzen nituen hasieratik oso argi utzi dutelako haien talde izaera feminista, ezagutzen nituen haien diskurtso antipatriarkala Errusian bizi duten egoera sozio-politikoari lotu eta erresistentzia mezu oso interresgarria helarazten zutelako, ezagutzen nituen feministok historikoki egin dugun bezala, mezu hori zabalatzeko oso modu sortzailea erabili izan dutelako.

Eta deitu iezadazue mesfidati, halaxe izango bainaz, baina nik ezagutzen nituen Pussy Riot horiek,

*Deitu iezadazue
mesfidati, halaxe
izango bainaz, baina
nik ezagutzen nituen
Pussy Riot horiek,
hain feminista
erradikal eta punki
izanda, izugarri
harritu nau jaso
duten eta jasotzen
ari diren babesak*

hain feminista erradikal eta punki izanda, izugarri harritu nau jaso duten eta jasotzen ari diren babesak. Esan nahi dut, arraroa dela egun, edozein feministek horrelako babes anitz eta aho betekoak jasotzea. Noski, nire harridurak badu azalpen bat. Esan nahi dut, segituan konturatu nintzela, oso notizia gutxitan

azaltzen zela haien feminista identitatea. Segituan aldatu zutela “feminista” hitza “talde femeninoa” gatik, edo Riot Grrrl inspirazioko talde punk feminista, Putinen aurkako punk talde sinple batengatik.

Eta orduan ikusten ditut halako babes argumentu neutralak, adierazpen askatasuna dela, laikotasun eskubidea dela, eliza eta boterearen arteko harremana kritikatzeko, Putinen gobernuaren mendekua salatzea... Eta ez nago prest, zeren Pussy Riot zerbait bada, talde feminista bat da, eta are gehiago, Pussy Riot osatzen duten kideak emakumezkoak dira, eta ez

dugu ahaztu behar emakumeok espazio publikoa hartzen dugunean eta propioki gure feminitatearenak ez diren jarrerak hartzen ditugunean zigorra bikoiztu egiten dela.

Beraz, Pussy Rioten askatasuna eskatzen dugun horietan noren eta zeren askatasuna eskatzen ari garen argi izan dezagun, besterik ez. ■



DANI BLANCO

**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Dezibel

BOST URTEZ belarriak urratzen zizkigun gobernu umparraren zarata apaldu da maiatzetik hona. Lehendakari aldaketari esker. Hargatik presidente berriak aldarrikatu normaltasunak ez ditu arazoak oro konpontzen, baina rom delakoak kanporatzen dira manu militar gehiegizko laudorik gabe. Ez da erraza rom izatea eta gainera irainak ahoak eman ahala jasatea. Hura bederen bukatu da.

Baionako bestak halaber isilkiago iragan dira, hemen ere dezibel kopurua menderatu dela. Festeire gutxiago ibili da, mozkor eta oldarroi, ghettoiko karriketan. Goiz naba-

rretako goitikin, izerdi, esperma eta pixa urrinak ordea sudurrak ziztatzen zizkigun lanerako tenorean. Berezilariak hiria tinkatu zuen lasaitasun bitxia azpimarratu zuten, izuaren mugetan. Hori bederen bukatu da.

Udako ekonomia aztertzen dabiltzanek azkenik, lumatzekoak diren turisten zenbaki eta erostahalarekiko iunfen dezibel neurriak behera egin duela salatzen dute. Jendarte pobretzen doala onartu nahi ez eta aro txarren bizkar jartzen dute kontsumoaren etendura. Hau bederen bukatu da. ■



«Nobelagilea gupidagabea da, makurra, gaiztoa, zikina»

Etxe dotore bat, higatutako harremanak eta halako lasaitasun estu bat giroan. Donostia. Martutene. Ramon Saizarbitoriaren azken nobela da jarraian datorren elkarrizketako gai nagusia. Hariari tiraka ordea, idazleak beste hainbat gairi buruz dauzkan iritziak azaldu dizkigu.

| GORKA BEREZIARTUA |

Argazkiak: Dani Blanco



Martutene giro burgeseko nobela da. Badirudi gainbeheran dagoen mundu bat irudikatu nahi izan duzula...

Pertsonaia burgesak eta euskaldunak dira bai, familia abertzaleetakoak eta batzuk baserria gertu dutenak, gainera. Alegia, burgesia berria. Eta nik uste euskarak irabazi duela burgesia hori edo alderantziz, burgesiak onartu duela euskara.

Eta dekadentea... Martutenen kokatzea, auzo dekadente batean... Bai, sentitzen dut hori Donostian. Nire adinean, zahartzaroan, edozein zoko garai batean politagoa zela, garbiagoa, aberatsagoa... Horrek ez du esan nahi lehengoa gehiago maite dudanik, Donostia ari da lortzen Gipuzkoako hiriburu izatea, sekula izan ez dena: probintziatik aparte bizi izan da, hain diferentea izan da Barojak maite ez zuen Donostia hura... udako hiriburu bat. Nahiz eta euskal burges liberal intelektual ia bakarrak Donostiak eman dituen, Barojaren aita esaterako.

Alde batetik gehiago maite dut Donostia hau, pixka bat hondatu eta zahartu zaiguna; baina egia da, era berean, badudala nostalgia bat edadearekin batera datorrena. Eta beharbada hori transmititu dut pertsonaiaren bat nire edadekoa den neurrian eta neurri batean nire *alter egoa* ere bai.

Pertsonaia askok errealtatean isla dute. Nahita?

Bai, kasuren batean nabarmen. Jaso ditudan historien maileguak ere egin ditut. Irudimen hutsa psikotikoei bakarrik dute ia; ni ez naiz psikotikoa, jainkoari esker neurotikoa bakarrik naiz, eta neurotikook beti gaude errealtateari itsatsita. Sortzen dudan guztia dago errealtateari itsatsita. Pertsonaia horiek neu-



retik ez dutena neure ingurukoengandik dute, dudarik gabe. Jaime Zabaleta adibidez [nobe-lan bizkartzainekin ibiltzera behartua dagoen politikaria], jende askok ezagutzen duen pertsonaia da, nahiz eta ez dudana erretratu bat egin nahi izan ezta karikatura bat ere.

Bada problema bat, irakurleek pertsonaiak modu literalegian hartzea.

Hori da nobelagile baten inguruan bizitzearen arriskua, nobelagilea gupidagabea dela esango nuke, baita makurra, gaiztoa eta zikina ere. Beharbada ni ez naizelako bene-benetako nobelagilea, zalantza etikoak izan ohi ditut eta hemen ere izan ditut pare bat, zilegi al zen hori egitea. Frischek asko ukitzen duen gaia da, *Martutenen* aipatzen da *Montauketik* hartutako zati bat: emazteak idazleari exijitzen dio “ez nazazu erabili zure literaturarako”. Eta erretratua egiteko erabiliko balitz, gaitzerdi. Baina nobelagileak egiten duena da ukitu, bihurtu... beste gauza bat. Eta hori guztia, bere nobelaren izenean.

Juliak Martini hori leporatzen dio. Ez zaio gustatzen haren liburuetan agertzea.

Bai, eta era berean Harrik nahiko luke agertu. Batzuei pentsatzen dut gustatuko litzaiekeela; Juliak dio, segun eta nork erabiltzen duen nahiago duela. Proustek erabiltzea edo Ramon Saizarbitoria, pentsatzen dut ez dela gauza bera izango pertsonaia bihurtu duten pertsona horrentzat.

Nork deskribatzen dituen, asko aldatzen da irakurleak pertsonaiei buruz duen irudia; norbaitenganako enpatia eragin ondoren, haren ikuspegi negatiboa eskaini duzu maiz.

“Jaso ditudan historien maileguak ere egin ditut. Irudimen hutsa psikotikoez bakarrik dute ia; ni ez naiz psikotikoa, jainkoari esker neurotikoa bakarrik naiz, eta neurotikook beti gaude errealtateari itsatsita”.

Tranparen bat ere egin dut. Asko interesatzen zitzaidan idazlea, Martin, neure buruaz hitz egiteko bidea ematen zidan neurrian. Baina hori eragozteko Juliaren bidez ikusten da Martin, nahiz eta zailagoa egingo zitzaidala pentsatu nuen, emakumea izanda –gero ikusi dut ezetz, azken finean emakume baten barruan sartzea edo gizon baten barruan... barkatuko didate irakurle batzuk, baina iruditzen zait ez dela horren diferentea—. Gehiago komeni zitzaidan Martin emakumearen ikuspegitik.

Pertsonaia gehienak dira onak edo gizajokak, ahal dutena egiten dute, baina beharbada Julia gupidagabea da batzuetan. Harri ere Juliaren begietatik ikusten da; batzuetan baita Martinen begietatik ere, nahiz eta Juliaren ahotsetik pasatzen den. Juliak esaten digu zer pentsatzen duen Martinek Harriz, baina beste ikuspuntu bat da, zera diferente bat eman dezakeena.

Ahalegindu naiz narratzaile orojakile hori sartu gabe idazten, oso antipatikoak egiten zait, ez dakit zergatik, aurreiritzi bat da, ezin dut horrekin. Lehen pertsona ere saihesten dut, errazegia ote den edo... Pertsonaia bera alderdi guztietatik narratzeko aukera ematen duen narratzaile orojakile hori sartu gabe, ahalegindu naiz bi ikuspuntu eskaintzen, nahiz eta batzuetan ez diren bi ikuspuntu garbi izatera iritsi, pertsonaia batetik pasatzen direnez.

Elkarrizketa gehienak zehar estiloan eman dituzu. Lagundu al dizu horrek aipatu duzun kontatzeko modu horretan?

Hori ere oso maitea dut, nahiz eta badakidan elkarrizketak zuzenean jartzeak irakurleari asko laguntzen diola. Jendeak maite dituela iruditzen zait, baina nik ez. Narratzaile orojakilea bezala, oso artifiziala iruditzen zait, gutxitan jaso daiteke dialogo bat ondo modu zuzenean. Eta horren atzetik jartzen denean “...esan zuen, zigarro bat piztearekin batera”, ez zait batere gustatzen. Gainera, zehar-estiloak laguntzen du hizkuntzen arazoa gainditzeko, gure diglosiarena, askotan faltsua gertatzen baita irakurlearentzat zenbait elkarrizketa euskaraz irakurtzea. Nahiz eta hizkuntza diferenteak gehiegi erabiltzen ditudan beharbada, elkarrizketak zuzen emateak naturalismo bati eutsiz eskatuko luke dena jatorrizko hizkuntzan egitea; edo modu ez natural batean. Adibidez, Guardia Zibil bat ateratzen denean edo... egoera askotan. Badakizu: “Tipo horrek euskaraz ez du pegatzen”.

Horretaz eztabaida oso interesgarria egon zen Mariasun Landak idatzitako *Festa aldame-neko gelan* liburuarekin, nahiko nuke hura berpiztu [Koldo Izagirrek Bazka.info webgu-

nean idatzitako *Le train express Durkheim-Castéjon* artikulua harira sortu zen eztabaidaz ari da]. Esaten zen kanpoko nobelak, Ingalaterran edo AEBetan gertatutakoak itzultzen direla euskarara eta naturaltasunez irakurtzen ditugula. Eta egia da. Baina gure errealitatean kokatuta ez da berdin: entzun dezakezu sioux bat bakero batekin euskaraz —nahiz eta telebistan aurreneko aldietan arraroa egiten zitzaigun; orain ez, ohitura kontua da—, baina momentuko irakurleari ere erantzun behar diozu. Eta irakurlea ohituta ez baldin badago, hitz berriei bezala da. Hor, izan ere, oso ausarta baita Koldo Izagirre. Nik gehiago begiratzen diot ulerkortasunari. Koldok esaten du: “Ohituko dira”. Baina bitartean, ez dute ulertzen. Tira, ba arazo horiek gainditzeko zehar estiloak laguntzen du. Baina ez da hizkuntzagatik bakarrik...

... pertsonaiak eraikitzen ere laguntzen du, ezta?

Bai, batek esaten duena zergatik esaten duen, dituen zalantzak eta abar, hobeto islatzen dira.

Nobelan bi bikote agertzen dira eta tartean Lynn. Zein aukera narratibo eskaini dizkizu pertsonaia atzerritar bat sartzeak?

Kanpotar batekin arazo gutxiago daukagu hitz egiteko, hainbat arrazoiengatik. Geure errealitatearen ikuspegi maitekorragoa ematen saiatzen gara. Gutxiago inporta zaigu jasoko duena, gure intimitateaz hitz egitea ere errazagoa da, pentsatzen baituzu maleta hartuko duela, bere herrira joango dela eta ez duzuela berriro elkar ikusiko. Lynnek zenbait gauza era sinple batean agertzeko bidea ematen zidan, kanpotar batek ulertzeko moduan. Guk geuk askotan ez ditugu maila horretan planteatzen errazegia iruditzen zaigulako. Eta ez, iruditzen zait gauza batzuetan hobe dela

esan duguna ahaztu eta oinarritik hasia eztabaidatzen, gauza sinpleenak ea argi ditugun.

Max Frisch aipatzen da askotan liburuan baina inpresioa dut idazkerak ez duela haren antz handirik. Lakonikoagoa ez al da hura?

Frischen bidea jarraitu baino traizionatu egin dut, egia da. Berak hain maisuki egiten du hori... Kontatu izan duenez, idazteak baino lan handiago ematen zion idatzitakoa garbitzeki.

Garan Joxean Agirrek egin zizun elkarrizketan esan zenuen zure betiko estiloarekin leial izaten saiatu zinela, baina gauza berriei ere saiatu zarela dirudi: esaldi luzeak, menpeko perpausak...

Esango nuke gero eta libreagoa naizela, gero eta gutxiago inporta zaidala zer esango duten. Tira, esango balute “*Martutene*, a zer kaka zaharra!” sentituko nuke, baina

ni konformatzen naiz jendeak esatearekin “tipoa ahalegindu da”. Horrek askatasuna ematen didala uste dut. Eta edadeak ere bai: nire adinekoak kalean ikustea besterik ez dago, gizonak galtza motzetan eta biserarekin; emakumeak bikinian... Ni gauza batzuetan gero eta lotsatiagoa naiz, jende aurrean hitz

egiteko edo fisikoki —nik jada ez dut hondartzan bainurik hartzen—, baina ez ordea beste zenbaitetan. Idazteko ez.

Lynn zer da, Lolita helduxeago bat?

Lynn sinplea da, AEBetako arazoez ez du hitz egiten, ez da kexu. Oso zentratuta dago gure gauzetan. Alde horretatik nahiko unidimentsionala dela esango nuke, ez baitzitzaidan interesatzen beste alderdi batzuetan sartzea. Pertsonaia aberatsegia egiteak gauzak konplikatu egiten zizkidan eta hor utzi nuen, minimo batean.

“Zehar estiloak laguntzen du gure diglosiaren arazoa gainditzeko, askotan faltsua gertatzen baita irakurlearentzat zenbait elkarrizketa euskaraz irakurtzea”



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Gainontzeko pertsonaien kontrapuntu gisa, beharbada?

Ez dakit. Badirudi hemengo pertsonaiei ez zaiela Estatu Batuetakoa gehiegi inporta eta egia da badaukagula hortik zer edo zer: gure arazoei garrantzi handia ematekoak gara, iruditzen zaigu mundu guztiak jakin behar duela horretaz.

Hiriaren eta herriaren arteko tentsioa ere antzeman daiteke. Otzetakoek askoz segurua- go dirudite euren mundu ikuskeraz, hiria da zalantzaren esparrua.

Topikotik eta karikaturatik badu, kontziente naiz horretaz, baina zaila da hortik ihes egitea. Eta interesatzen zaizkidan pertsonaiak Martutenekoak dira. Beste maila batean Otzetakoak Lynn bezalakoak dira, Martutenekoak perturbatzeko edo hobeto ikusteko erabili ditut. Alde horretatik autokritika egingo nuke. Bai, egia da, era sinplean tratatu ditudala Otzetakoak eta ez naizela ahalegindu haiek atsegin bihurtzen. Baina uste dut erretratuak egia ere erantzuten diola: sentitzen dut, baina naturalagoa egiten zait zenbait arazori buruz norbere buruari galderak egitea hirian, baserrian baino.

Era berean, badago mendeku bat-edo, hiritarra naizen neurrian, eta donostiarrak. Nire aiton-amonak ez ziren donostiarrak eta ez dut barkamenik eskatu behar, baina demagun donostiarrak zirela: barkamena eskatuko nuke, barre egiten zutelako probintziatik zetorren jendeaz erdaraz gaizki hitz egiten zutelako; eta neskame edo inude bezala edukitzen zituztelako. Baina hori esanda, onartu beharra ez-dakit-zer herritakoa zarelako perfektuagoa zarela eta bertakoa izateagatik ñoñoagoa... Antipatikoa iruditzen zait. Eta beste hainbat gauza: lekuan lekuko euskara aldarrikatzea berriro, berriz euskararen batasuna kuestionatzea... Ez zaizkit sinpatikoak egiten. Beraz badago alde horretatik gaiztakeria. Gauza gehiago ere badaude, kultura adibidez: euskarak eta euskaldunok dauzkagun zailtasunak nekazal-zeratik alde egiteko. Eta belaunaldi batek lortzen duenean pixka bat gaintitzea, atzetik dator hurrengoa berri ere aldarrikatuz.

Eta jarrera batzuk ulertzen ditudan arren, uste dut gaintitu behar ditugula. Datorkigun mundua ez da Otzetakoa, hori oso txiki geldituko da. Uste dut salbazioa Bilbon dagoela: Bilbon salbatuko gara, edo ez gara salbatuko.

Bilbon? Donostian ez?

Tira, handiagoa delako. Barka bezate donostiarrak.

Zure irudia Donostiarekin asko lotzen delako galdetu dizut.

Ba hain zuzen ere neu naiz Donostiaren kritikorik handiena. Donostiarrak ez ditut soportatzen [barre egin du]. Zenbakietan gure hiria Bilbo da, batez ere.

Badirudi “dena” amaitu den momentuan argitaratu dela liburua: ETaren amaiera, ziklo ekonomikoarena...

Irudipena dut zerbaiten bezperan gaudela eta ez garela enteratzen. Edozer gauza gerta daiteke eta hemen gaude Joko

Olinpikoekin [uztail amaieran egin zen elkarrizketa], laster liga datorrela... Nire gaztetako galderetako bat da zer sentitzen ote zuen jendeak 1936ko uztailaren 17an, Donostian adibidez. Gerra bezperan tranbia gidaria bere lanera joan al zen normal? Baserritara azokara normal? Ez al zuten ezer nabari?

Literaturara ekarriz, konturatzen naiz beti gaizki eraman dudala idaztearena, nire inguru profesionalean ez didala lagundu pertsona serio bezala agertzen. Nobelak idaztea gero eta hobeto kontsideratua dago sozialki, nobelagile batzuk famatuak eta batez ere dirudunak egin diren neurrian, baina gainontzean idaztea ez zen gauza serio gisa kontsideratzen eta neronek ere, euskarari lotzen nion neurrian derrigortu dut neure burua idazteko joera ikuspegi horretatik kontsideratzera.

Baina esango nuke bizitza erdia pasa dudala pentsatzen jende serioa zegoela gauza garrantzitsu

ez arduratzen: industria gizonak, ekonomialariak, politikariak... Eta gero gu, literaturak kezkatzen gaituenak; eta asko gainera. Egunean ordu asko pasatzen ditugunak eszena batean pentsatzen. Eta derrepente kon-

turatzen zara lan horretan askoz serioagoa izan naizela jende hau beren lanean baino. Eta hasten zara ikusten argazkietan nola dauden barrez biltzen direnean; eta Nazioarteko Diru Funtseko tipo hau ipurdi guztien atzetik... Satrapa batzuk dira. Zoro asko dago jende horren artean eta gure gauza garrantzitsuak klase horretako jendearen esku utzi ditugu.

Gerra aipatu duzunez, nobelan agertzen den gaia da, itzalpean bada ere.

36koaz ez dakit noiz likidatuko ditugun kontuak. Euskal Herrian tira, iruditzen zait hobe-

“Nire gaztetako galderetako bat da zer sentitzen ote zuen jendeak 1936ko uztailaren 17an. Gerra bezperan tranbia gidaria lanera joan al zen normal? Ez al zuen ezer nabari?”

“Kontsentsua etor liteke literaturaren bidetik, batez ere literatura egitua bada”

to daukagula Espainian baino. Hura oso grabea da, oraindik ez dute gerraren bertsio bat emateko —tira, Frantzian ere Hollandek orain onartu du II. Mundu Gerrako kolaborazionismoaren kapitulua—. Oso gai inportantea da eta sintoma txarra iruditzen zait jendeari harrigarria gertatzea, edade bat duten pertsonentzat ere gai inportantea izatea; egungo joera asko 36ko Gerraren ikuspuntutik ulertzen baitira. Eta beste batzuk aurreko gerretatik, karlistadetatik.

Nire inguruan ikusi dut jendeak izan duen norabide aldaketa: garaileen familietan jaiotako batzuek kontzientzia txarra izan zuten eta jarrera batzuk hartzera eraman zituen horrek; gero batzuk aitaren etxera egin dute bidaia. Kezkagarria iruditzen zait eta neurri batean gertatzen da ez garelako egiten ari Gerra Zibilaren interpretazio ona. Oraindik “alde bietan izan ziren bidegabeke-riak” edo “gaiztoak ez ziren hain gaiztoak izan” bezalako esaldietan gaude.

Erdibidean.

Bai, eta onartuta ere leku guztietan daudela onak eta txarrak —nik onartzen dut egon zitekeela falangista gizajo bat, ona; eta egin liteke horren nobela—, talde bezala zer egin zuten begiratu beharko litzatekeela uste dut. Esfortzua egin beharko genuke historia adosten, hemendik urte batzuetara umeez bertsio antzekoa jaso dezaten, gutxi gorabehera. Historia kontsentsuatu bat. Zaila egiten zait nire belaunaldiko askok garen bezalakoak garela onartzeko daukaten zailtasuna, ezin dut ulertu. Gure egoera berezia izan da eta iruditzen zait mundu guztiak nahi duela bere burua leku goren eta nobleenean kokatu.

Pertsonaiek gainean daramaten zametako bat erlijio katolikoarena dela dirudi. Moraletik askatu ezina.

Ni neu nahiko izututa bizi izan nintzen erlijio katolikoarengatik eta hori ez diot barkatzen. Ez dakit zein zoriontasun maila espero neza-keen bizitzan baina esango nuke erlijio katoli-koak kendu didala chuneko inportante bat. Gazteek ez dakite zertaz libratu diren, jakin beharko lukete. Ez dut sekula idatzi esperien-zia hori, fraileekin-eta izandakoa. Orain frai-le ez diren batzuek, jarrera aurrerakoietan



Ramon Saizarbitoria kontent dago Martutenek orain arte izan duen harrerarekin. Argitaratu diren kritikek liburua errespetatu dutela uste du eta dagoeneko hasi da berriz idazten. “Ezertarako ez” dio, “edozer gauza, baina igarri diot behar dudala idaztea beste ezertan ez pentsatzeko”.

daudenak gainera, sotanadu-nak zirenean egiten zituzten eraso fisikoak-eta...

Belaunaldi batzuk asko mar-katu zituen horrek.

Ez sinestekoa zen. Brome-tan esan ohi dut, baina nik 14 urte nituenerako boxeo-lari profesional batek jaso-tzen ez dituenak jasoak nituen. Eta ez hori bakarrik: sexuaren aurreko jarrera, infernuaren beldurra... Ze eszenifikazioak... Garizu-mak zer ziren, sentsibilitate pixka bat zuen mutiko edo neskato batentzat Kristo haiek zapi ubel haiekin esta-liak... Kurioso da, jende askori orain ez zaio hain gra-bea iruditzen. Ez zaio eman beharko litzaiokeen garran-tzia ematen kontu horri, horregatik nik aipatzen dut ahal dudan guztietan, nahiz

eta ez diodan inoiz ere eman horri bakarrik liburu bat. Ez dakit zergatik, beharbada trau-marengatik.

Juan Luis Zabalak Berrian egin zizun elkarriz-ketan esan zenuen: “Luma hartzen duenak jakin behar du baretzen eta zentzuz jokatzan”.

Ados nago esan nuen horrekin eta ez nago ados, segun. Norberak nahi duena idatzi behar du askatasun osoarekin, hori da lehen-biziko gauza. Baina jende askok probokatze-ko idazten du eta nik uste dut lan pedagogi-koa egin behar dela, idazle batek ezin duela hori ahaztu. Egia da neronek ere fraileez lan pedagogiko bat egingo ote nukeen ala lan probokatzaile bat ez daukadala argi. Baina batez ere prentsan artikulua idazten dituen jendeak neurtu beharko luke hori.

Literatura izan daiteke kontsentsuaren espa-rrua?

Kontsentsua etor liteke literaturaren bidetik, batez ere literatura egia baldin bada. Baina ba al da literatura egia? Iruditzen zait gene-roen moda honekin, eta gure kasuan Euskal Herriko indarkeria genero bihurtu da neurri batean, literatura ez dela egia. Idazle batek gai bat hartzen duenean modan dagoelako, niri ez zait sintoma ona iruditzen. Esango nuke ari dela produzitzen litera-tura bat, gaztelaniaz bereziki, hemengo arazoa baliatzen aritu dena, arazoa bera aztertu eta agertzen baino gehiago. ■



Euskal Herriaren arimaren konposatzailea

Duela ehun urte sortu zen Francisco Escudero maisua, musikari handietan handia, esan gabe doa, eta duela hamar hil. Bi arrazoi biribil, haren obra oparoari dagokion merezimendua, ezagutza eta zabalpena aitortzeko.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

ERTZ UGARI du Francisco Escuderoaren figurak. Donostiako Kontserbatorioko zuzendari eta katedratikoarena. Konposizioan, harmonian edota pedagogia mailan bide ezezagunak urratu zituen ikerlariarena. Gure hizkuntzak musikaltasun aparta duela nabarmendu zuen euskaltzale eta abertzalearena. Noski, sortzailearena, eskola sortu nahi izan zuen musikari berritzailearena. Haren hitzak erabilita, ez zelako “do re mi fa sol” egitera mugatu.

Hizkera propioa sortzea izan zuen beti helburu. Haren seme Francisco Maria Escudero urteurrenako ekimenen batean gogoratu duenez, kezka berezia erakutsi zuen zentzu horretan. Bere obrek “Escudero kutsurik” ba ote zuten galdetzen omen zien sarritan konfiantzazkoei; zerabilkien lengoaia berea ote zuen.

Bere obra esanguratsuenek folklorea eta tradizioa izan zuten oinarri eta abiapuntua. Alabaina, Usandizagak edota Guridik berak baino urrunago jo zuen ausarki. “Herri kan-

tek sortzeko balio didate, ez harmonizatze-ko”, argitu zuen inoiz.

Ez zituen forma musikal laburrak gutxies-ten, baina eskema handietara jotzen zuen kasik erremediorik gabe. Esan nahi bata, oratoria, baletera, kantatara edo operara.

1987an, maisuak bere ordura arteko ekarpe- naren errepasoa egin zuen ARGIAN. Gozo gabe ageri zen garai hartan. Etsita, ingurune hurbi- lean babes eza sumatu zuelako. Eta zapuztuta, Euskadiko Orkestrak zeraman politikagatik; bertako obrak atzerrira zabaldu beharrean, Beethoven, Mozart eta beste konpositore sobera ezagunen obrak hobesten zituztelako. 1990eko hamarraldian atera zuen arantza, bes- teak beste Donostiako Zilarrezko Domina eta Zarauzko Urrezkoa jaso zituenean.

Horra Escudero berak hedabide honi emandako azalpenak, bere zenbait obrak.

● **Dantzari baten ametsa (1945), baleta.**

“*Dantzari baten ametsa, Itzjar, Fantasia geosin- fonikoa...* Horiek pittin bat txikiak dira nire erreperatorioan. Ez dira horren txikiak, baina txikiak dira. Barkatzen ez dudana da gure musikaldirik garrantzitsuenetan *Hileta* bezala- ko obrarik ez jartzea, gure musikaren zabal- kundeari mesede kaskarra egitea da”.

● **Hileta (1952), oratorioa.**

“Euskararen ghettoa puskatu zuen, Xabier Lizardiren *Bibotzean min dut* dela medio. Lehenengo aldia zen frankismora ohitutako antzoki batean euskaraz kantatzen zela [1955ean estreinatu zen Bilboko Buenos Aires antzokian]. Uste zuten gauza arrunta izango zela, zortzikoren bat, Euskadirentzat ez zuela ezer suposatuko. Egur ederra jaso zuten euskara lurperatu nahi zuten guztiek. Euskal oratorio unibertsal bat, gure herria zer zen islatzen zuena eta europar zentzuan

Bere obrak gutxitan jotzen direla eta

“Biolontxelo eta biolinerako egingo banitu gehiago joko lira- teke, zalantzarik ez. Baina hain da handia Euskal Herriaren adorea! Nola liteke gurea bezalako herri batek halako proie- kzioa, halako indarra, halako nortasuna izatea? Indar handia du bere musikak, espiritu handia. Koroak behar ditut, orke- stra behar dut, solistak behar ditut Euskal Herria bere horre- tan agertzeko. Eta gainera hemen ditugu horiek guztiak. Ez daukagu kanpoko inoren beharrik. Ahots euskaldunak ez da falta, eta ederra da hori, buruz eta euskaraz kantatu behar baita. Ahots horiek heztea besterik ez da falta. Nik ez ditut ahots betegarri horiek ekarri nahi, hemen xaramelan aritze- ko. Horrek ez du ezertarako balio. Mende asko dira teatro mota hori pasa zela. Teatro hori (Wagner, Verdi...) interesga- rria da, baina guk gaingitu egingo genuke”. ARGIA, 1987

XX. mendeko
madarikazioak
bere larruan
ezagutu zituen
Francisco
Escuderok:
gera,
erbestea,
kontzentrazio
esparruak.



AUTOR BAYO

egina. Madrilera eraman zutenean boikot modukoa egin zioten”.

● **Arantzazu (1955), poema sinfonikoa.**

“Arantzazuko Benedicta zer den islatzen dut hemen. Gainera, euskaldunaren espiritu Inaziotarra ere eman nuen hor. San Inazioten etorrera kontatzen dut, handikiro. Eta aurretik gertatutako gerra, Oinaztarren eta Gantboatarren arteko liskarrak, Arantzazuko paisaia latza. Baltzategi artzainari Amabirjina agertu zitzaionekoa... Hori guztia dago jasoa”.

Bartzelonan estreinatu zen, Kataluniako Musika Jauregian, 1959an.

● **Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua.**

“Espainiako Orkestra Nazionalaren enkar-guz sortua da. Obra konplexu xamarra da, neroni ere irudikor xamarra bainaiz. Kontzertu hau, bere forma eta sonoritatean, bakarra da, tonu laurdenetan idatzita baitago. Modernitatea erabatekoa izanik ere espresiboa da. Biolontxeloak daukan hizkerak erabat aplikatzen du bere jatorrizkoa, bere jotzeko modua, bere natura. Lehen sekula aditu gabeko soinuak ateratzen ditu”.

1972an estreinatu zen Madrilgo Teatro Real antzokian.

● **Sinfonia sakratua (1972), poema sinfonikoa.**

“Obra hau zaila da deskribatzen. Pasioan, letra hartu eta letra hori koroan jarriz gero, berehala lortzen duzu girotzea. Letraren indarrak, egoeraren indarrak. Orkestratzea pittin bat menderatzen baduzu ere lor liteke pasioa, baina esaten badizute ez dagoela perkusiorik, eta tronpetarik ere ez, esaten badizute oboea eta fagota besterik ez dagoela...

Euskara oinarrian

“Euskalduna izateak eraman ninduen hemengo musika ikertzerara. Gu ez gara gehiegizko apainduraren zaleak, italiarrak bezala. Askoz ere zuzenagoak gara, serioagoak. Hitzari garrantzi handia ematen diogu. Horregatik ikertu nituen gure betiko kantak, noten arteko egonaldiak, loturak eta balizko konbinaketak. Horrela konposatu nuen *Hileta* oratorioa eta ondorengo lan guztiak. Ezinezkoa zait beste musika bat konposatzea, euskaratik beste hizkuntza batera itzultzea”.

ARGIA, 1992

estutasunean jartzen zaituzte. Nire obrarik onenetakoa dela uste dut”.

● **Euskal Herriaren Salmoa (1980).**

“Eusko Jaurlaritzaren enkarguz sortu nuen. Euskal Herriaren batasuna, bakea eta anaitasuna sinbolizatzen ditu... Egunen batean iritsiko da hau guztia. Iritsiko ahal da! Karmelo Iturriak eta biok sortu genuen baina ez da Idatzi sainduetatik ateratako salmoa, salmo abertzalea da. Testua sortu genuenean, salmo baten indarra nahi genuen, herri baten uste sendoa eta herri honen historia ere bere baitan izango zituena. Espiritualtasun handiko obra da. Euskadiren izaera oso ondo islatzen duela uste dut”.

● **Gernika (1985), opera.**

“Bigarren opera hau konposatzea errazagoa izan zen, gerra gertutik ezagutu bainuen. Pertsonaiak neuk asmatuak dira. Horrela sortu zen adinik gabekoa zen Gernika, bere etorkizuna aurrez ikusten zuen emakume gaztea. Bonben pean hil zen euskalduna. Heriotzarekin amaitzen da opera. Horregatik, oraindik ere, ia errespetu falta iruditzen zait funtzioaren amaieran txaloa jotzea. Ez baita txalogarria, negar egitekoa baizik”.

Libretoak Augustin Zubikarai eta Karmelo Iturriarekin batera osatu zuen. 1987an estreinatu zen Bilboko Arriaga Antzokian, Gernikako bombardaketaren 50. urteurrenaren karietara.

Musikaren irakaskuntza profesionala izan zuen ogibide nagusi. Bere eskoletatik 34 musikari belaunaldi iragan ziren, 4.000tik gora ikasle.

Donostiako Kontserbatorioriko zuzendari zen garaian, txistuaren eta eskusoinuaren balio akademiko ofiziala lortu zuen. ■



Helduen literatura | AFORISMOAK

Atzorako geratu dena.
Ana Urkiza.

Alberdania, 2011.

120 orrialde. Paperean 20 euro, digitalean 11,20 euro.



*Zenbat eta gutxiago irakurri,
orduan eta handiago izango da
idatzita utziko dugun ondarearen balioa*

AFORISMOAK berekin du laburtasuna eta zorroztasuna. Eta horretaz gain, grazia eta ingenioa lituzke, egiantzaren gainetik, nahiz eta egia autoreak erantsirikoa izan. Paradoxarena, beste kontua litzateke. Humberto Ekok honela bereizten ditu aforismoa eta paradoxa: *“El aforismo, por tanto, sería una máxima que pretende transmitir una verdad, aunque recurra a la agudeza, mientras que la paradoja sería una máxima prima facie falsa que, sólo tras una sesuda reflexión, parece expresar algo que el autor considera verdadero. Por ese motivo, su agudeza radica en el hiato entre la forma provocadora que adopta y lo que el público espera”*. (Beraz, aforismoa egia bat transmititu nahi duen esakunea litzateke, ateraldira joko badu ere. Paradoxa, berriz, esakune *prima facie* faltsua litzateke; hausnarketa sakonaren ostean, autoreari egiazkoa iruditzen zaion zerbait azaltzen duela ematen du. Hori dela eta, hartzen duen forma probokatzailaren eta publikoak espero duenaren artean sortzen den hiatoan datza bere zorroztasuna).

Urkizak sententziaz kargaturiko aforismoak bota ditu liburuan, beti ere jendartean erroturiko hainbat sinesmen hankaz gora jarritz: “Buruz behera jartzen naizenean ikusten dut mundua zuzen”, edota sakonduz “Politikariek ez dute egundo asmatzen. Ez eta gehiengoaren nahi hipotetikoa betetzen dutenean ere”.

Ingurumarian gertatzen denaz hausnartzeaz gain, maitasunaz, perfekzioaz, generoaz eta beste hainbat eta hainbat gaiz mintzo da Urkiza: “Maizenik gizona bere baitan hartu behar izaten du emakumeak, zakila

bezala”, “Laranja osoak garela aldarrikatzen hasi”, “Liftinak historia ezabatzeko ahalmena du; gezurra makillatzekoa”.

Baina aforismoez gain, paradoxaz kargaturik dago Urkizaren lana: “Hilekorik ez daukanak ez daki benetakako tripako mina zer den; hortik, burukominak ematen dituzten gerlak”, “Aberats izaten ikasteko, hobe lehenago pobrezian matrikulatzea”, “Diruagatik dena saldu ohi dugu, baita diruarekin erosi ezin den hura ere”.

Aforismoak gurean ez dira berriak eta etenik gabe azaltzen joan dira. Xabier Altzibarrek duela gutxi argitaratu zuen artikulua interesgarri bat *Euskera* aldizkarian: *Juan Martin Hiribarrenen Eskaraz eguia (1858), erranak eta aforismoak*. Hiribarrenek tenore hartan esandakoen eta Urkizak bota berri dituenen artean badaude diferentzia nabarmenak, baina baita antzekotasunak ere: hizkuntza eta bakoitzak bere garairen inguruan ematen duen ikuspegia eta egia.

Aforismoa gora eta aforismoa behera, argi dago aforismo asko idazten eta irakurtzen dela kontestua- rekin lotuta daudelako edota irakurketa kapsula txikiak direlako. Kontua da irakurleek estimazio egiten dietela, pena bada ere, izan ere “Zenbat eta gutxiago irakurri, orduan eta handiago izango baita idatzita utziko dugun ondarearen balioa”. ■

Gema Lasarte



B R A N K A

Kontxako olatuen gainean, Haize Orraztearen ondoan, bertako produktuengandako arreta bereziarekin

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia

© 943 317 096 · Faxe: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com

www.branka-tenis.com

Ameriketako tradizioa gurera ekarriz

Beti bide zailenetik
Topeka.

Gaztelupeko Hotsak.
Autoekoizpena. 10 euro.



HERNANI aldeko Madarikatuak taldeko kide izandako Goio Matarranzek urteak zeramatzan slide gitarra jotzen ondo ikasi eta doinu amerikarreko talde bat egin nahian. Bada, kantuak idatzi eta prest izan zituenen Topeka taldea eratu eta entseguen hasi ziren. Hemen daukagu beraien estreinako lana, eta dagoeneko zuzenean aurkezten hasiak dira. Nik neuk sorpresa handia hartu dut, taldearen izena Euskal Herriko folkarekin gehiago lotzen nuelako.

Folketik eta estilo puruetatik asko du talde honek, baina AEBetarikotik: bluegrass, rocka eta countrya, hain zuzen ere. Eta ez da ohikoa gitarrak eta detaileak hain zainduta duen halako diskorik hemen entzutea. Kantu ia guztiak euskaraz dira, txantxa eta kontu serioak uztartuz, eta taldea sendoa izanda ere, besteak beste Tapiak eta Arkaitz Minerrek ere parte hartu dute. ■

www.myspace.com/topekagrupa

TOPEKA | GOIO MATARRANZ

«Koruei garrantzi handia ematen diet, eskola zaharrekoa naizelako»

“Itsaso usaina neure barruan, ontziratuko naiz hurrengo marean”. Norantz, AEBetarantz?

Konposatzeko onena bidaia zela da, leihoak zabaltzen dizkizulako. Musika amerikarra oso gustukoa dut: gitarrak, soinua, slide-a... 1994an egonaldia egin nuen indioen erreserba batean eta lehen dobroa erosi nuen.

Gaur jakin dut Topeka Kansaseko hiriburua dela.... Zergatik aukeratu duzue?

Emazteari bururatu zitzaion. Euskarazko hitza da eta Kansaseko hiriburua ere bada. Izen indioa da eta “patatak lantzeko leku ona” du esanahia. Topekadaka bizi gara.

“Etendako ahots batek ez du kanta hau kantatzen”. Zer lortu dezake kantu batek?

Kantuak ez du ezer aldatuko, baina nire barrua baretuko du. Gaur egun, edozer ikusita ere, ez gaitu ezerk mugiarazten.



Topekaren marka dira “uuuu” koru horiek. Garrantzitsuak dira?

Bai, koruei garrantzi handia ematen diet, eskola zaharrekoa naizelako. Batzuek esaten didate 1960ko hamarkadako eragina dela, eta hori pozgarria da.

Aldizka irteten dira “Aldizka” moduko hitz inspiratuak?

Aldizka erraldoi bat izan nahiko nuke... baina azkenean pozik egon beharko gara garenarekin. Euskaraz hitzak egitea dezente

kostatzen zait, euskaldunberria naizelako.

Grabatzerakoan, detaile guztiak buruan zenituzten edo bidean batzen joan dira?

Buruan neukan guztia. Kolaboratzaileak ere aspaldi nituen pentsatuta: Tapiak eta Arkaitz Miner, eta oso oso pozik gaude; bata kaxuna jotzeko duen moduagatik eta besteak biolinarekin ia negarrak sorrarazi zizkidalako.

“Jei jou iupi ia ei iepa iepa ia”. Euskanglish karaokoa?

Grabaketaren bezperan bururatu zitzaion, Euskal Herrian agurrak egiteko modu asko ditugulako; eta horiek batu genituen.

Zer dute blues, country eta folk moduko soinu puruek?

AEBetatik txipa aldatuta etorri nintzen, konturatu nintzen estiloen esentziara jo behar nuela eta slide-arekin saltatzaren hasi nintzen. ■





WIKIPEDIA

Egon Schieleren ehundik gora lan Bilboko Guggenheim museoan

BILBOKO Guggenheim museoak Egon Schiele artista espresionistaren obrak ekarriko ditu urrian. *Egon Schiele. Vienako Albertina Museumeko obrak* izenburupean, ehundik gora lan erakutsiko dira guztira, 2013ko otsailera arte.

Egon Schiele espresionismoaren ordezkari gorenak (Tulin, Austria, 1890-Viena, 1918) hamar urtean ondu zuen bere sorkuntza-lana, 1908 eta 1918 urteen artean hain zuzen, gazterik hil zelako. Obra-

sorta oparoa utzi zuen hala ere: 2.500 lan paper gainean eta 330 margolan zur eta mihise gainean.

Bilboko Guggenheimera helduko den bilduman artistaren hastapeneko obrak erakutsiko dira batik bat, Vienako Arte Eder Akademiako ikasle izan zen garaikoak. Handik aurrerako lanetan Gustav Klimten eta modernismoaren eragina igartzen da. Azken urteetakotan, berriz, naturalismoa atzean uzteko ahalegina ezaun da. ■

JEAN FRÉDÉRIC NEUBURGER, piano jotzailea

“Ravelen zentzu bikoitza ulertzea gako nagusienetakoa da bere musika jotzeko”

“RAVELEN *Esku ezkererako kontzertua* ondo ulertzeko, duen iluntasunaz jabetu behar dugu. Etsipenaren irudia da, itxaropen-gabeziarena; itxuraz alaia dirudien arren, tonu ironiko-sarkastikoz josia da. Zentzu honetan Ravelek Mahler-en antza du, melodia optimista eta argitsuaren atzean sentimentu sakon eta iluna ageri baita. Ohikoa du hori bere musikan, baita *Bolero*-n ere. Eta zentzu bikoitz hori da, hain zuzen, liluratzen nauena Ravelen obran. Hori behar bezala ulertzea bere musika jotzeko gakorik nagusienetakoa da”. ■

Gara, 2012-08-23



MUSICALTAFESTIVAL

Mikel Antzaren azken nobela, *Atzerri*, editorearen eskuetan da. Bertan kontatzen denez, idazle batek, beste idazle bati kartzelatik ihes egiten lagundu ostean, atzerriara jo behar izango du; isil eta gordean ibiltzera derrigortuta izaki, idazteari utziko dio halaberharrez. Urte batzuk geroago, atxilo hartzen dutenean, literaturaren bideetara itzultzen hasiko da pixkanaka. Susa argitaletxearen eskutik ikusiko du argia, urriaren erdialdera.



BIARRITZ-CULTURE

Dantza maitatzeko garaia Miarritzen

IRAILAREN 9tik 18ra bitartean *Le Temps d'Aimer* dantza festibalearen 21. edizioa iraganen da Miarritzen. Tarte horretan hogeita hamar erakustaldi inguru eskainiko ditu maitaldi honek, hiriko zenbait tokitan. Hala nola, mediatekan, geltokian, hondartzan, itsas pasealekuan, Coliseumean edota Kasinoan. Konpainia gonbidatuak Frantziatik, Europa iparraldetik, Magrebetik, Hego Amerikatik edota Ekialde Hurbiletik helduko dira. Aurtengo hitzordu hau inoiz baino eklektikoagoa izango dela agindu du festibalearen arkitekto eta Biarritz Culture-ko zuzendari den Jakes Abeberryk.

Eskainiko diren saioen lagungarri, erakusketak, ikastaroak eta filmak ere izango dira. ■



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Musikari handiak intimitatean

ABUZTUAK 3 (Donostiako Jazzalditik 11 egunera), Zumaiaiko Itzurun tabernako terraza (Kursaalekotik 31 kilometrora). Euskal musikariak omenduz kantu mitikoak eta hain ezagunak ez direnak eskaini zituzten, ilunabarrean hasita.

Gaugiro zegoen. Terraza lepo, baina jendea hankak luzatuta, erlaxatuta ari zen entzuten. Txoko bat egin genuen eskilaretan, giro goxo eta intimo horretan sartu nahian. Ze indarra zerion zuzeneko emanaldi hari! Begi-belarriak adi, poroak zabalik, soinuak eta hitzak sabelera iristen ziren, emozioen akuilu. Ortegak begiradarekin elkartzen gintuen denok, gutako bakoitzari kantatzen zigun. Salvadorrek doinu ezagunak jazzaren uretara zeramatzan.

Bukaeran, KantaginJazz-ekin herri bakoitzean egiten saiatzen diren moduan, zumaia musikari bat gonbidatu zuten eurekin jotze-

KantaginJazz
Ainara Ortega (ahotsa) eta
Iñaki Salvador (pianoa).



ra: Julen Izarra saxojolea; eta zoriak nahi izan zuen Luis Camino perkusiolaria bertan egokitzea. Elkarrekin pieza pare bat jo ostean, kontzertu osoan kantuen artean jarritako umore tonuari eutsiz iragarri zuten “hau tragoa da guretzat,

baina egin egin behar da”, “bai, lehenbailehen eginda hobeto”... inprobisatzea, alegia. “Lau teilatu” kantua interpretatu zuten lauen artean, puntuka; hasieran saxoa ibili zen nahieran, ondoren pianoa aritu zen librean, eta azkenik ahotsa askatu zen. Magia momentua izan zen, publikoa jolasean sartu gintuen, melodiak eta erritmoak nora ote zihoazen igarri nahian.

Geroztik, batekin eta bestearekin komentatu izan dugu esker txarrekoa ote den jazz, bai behintzat Jazzalditik 11 egunera eta 31 kilometrotara. Musikariek beste estilo batzuetan masak mugitzen dituztela. Hala izango da, baina emanaldi bildu horrek zeukan energia, pertsonatik pertsonarako konexioa, bakana izan zen. ■



Estitxu Eizagirre

EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELO-PAIERA
HEMEN PMU

Hitz gezidunak

TOKI HONETARA ILOBA (BIZKAIAN)	PERTSONAIA- REN IZENA ITSAS ARRAIN	AIMENTA	EGOKI NIRE	ARRESKE DAGOEN	LUZATU ADITZAREN ERROA PERTSONAIA- REN ABIZENA	JANARIA GAZTAROAN
NUEÑ BARRUAN		MENDE- URRENA SUARI DARIONA	ERAIKIN ERLJIJOSOK ANPEREA	NAZIONAL- SOZIALISTA ÜTIKAN!		
LO EGITEKO ALTZAIURU	DAGO HAZTAMUKA				HERRI HIZ- KERAN, ETA PERTSONAIA- REN JAIOTE- RRIA	
BIHL, GARAU EUSKAL FONEMA		LABEAN PRESTATUTA		HITZ, MINTZO EKINTZA		ALDE, ALDERDI
	ROENTGEN LARRU, AZAL			HOTELETA- KO IKUR BURURATU		
NONDAK ATZIZKIA NAFARROA BEHEREKO LAGUN		JADANIK NAZIOARTE- KO OLINPIAR BATZORDEA	DAGO AHOTS	OXIGENOA NOREN ATZIZKIA	EMAKUME IZENA AREAGO	TONA INTERJEK- ZIOA
ELEKTRODO NEGATIBO KUIATXO			UGARITASUN HANDIAN IOBOA			
				EUSKAL MITOLOGIA- KO JEINUA		

Kike Amonarrizen umorea

Pakistango mugan

Bi bidaiari euskaldun ausart Pakistango mugara iritsi dira. Bertako poliziek bizkar-zorroak mahai baten gainean uzteko eta dokumentazioa emateko eskatu ondoren, galdezka hasi zaizkie:



- Alkoholik?
- Ez, batere ez!
- Armarik?
- Ez, ez!
- Drogarik?
- Ez!
- Nahi?

Soluzioa

J	A	K	I	T	A	E	R	E	Z	E
L	U	Z	A	N	A	E	I	A	N	E
I	D	E	L	I	N	A	U	T	E	L
O	N	E	N	A	N					
I	M	E	N	E	A					
L	A	K	E	N						
H	O	B	E	R	D	A	E	R	A	R
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					
L	O	B	A	R	O					
B	A	R	O							
H	O	B	A	R	O					

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Abiadura hipersonikoko hegaldiak luzatu nahian

ABUZTUAREN 14AN NASAK egindako saiakerak huts egin zuen. X-51A WaveRider gailu hipersonikoak, hamabost kilometroko altueran hegaltzeko, orduko 7.000 kilometroko abiadura lortu behar zuen bost minutuz, baina 31. segundotan hegaltzeko funtzionamendua akatsak porrota eragin zuen.

Maila horietako abiadurak Mach zenbakia erabiliz neurtzen da. Mach 1 soinuak airean eta hamabost graduko tenperaturan duen abiadura da: 1.224 kilometro orduko. Mach 1etik gorako abiadurak supersoniko deritze, eta Mach 5etik gorakoei hipersoniko. Une honetan, abiadura errekorra NASAREN X-43 gailuak du; Mach 9,6ko abiadurari eustea lortu zuen hamar segundoz. Abuztuko saiakeran ez zuten abiadura errekorrik hautsi nahi, baina bai abiadura hipersonikoan luze iraun duen bidaiarena. Abioigintzako enpresa ugari interesatuta da abiadura hipersonikoetan, batez ere bidaiak luze iraupena murrizteko; X-51A gailuaren abiaduran bidaiatuz gero Paris-New York ibilbidea ordubete egin liteke, eta Paris-Tokio bi ordutan. ■



AIR.BLASTMAGAZINE.COM



Marteko irudiak Interneten ikusgai

Abuztuaren 6an *Curiosity* zunda Marteko Gale kraterrean pausatu zen eta handik irudiak eta informazioa bidaltzen ari da. Bereizmen handian hartutako irudietako batzuk, publikoak izateko NASAK baimena eman ondoren, beheko helbidean ikus ditzakezue.

ttiki.com/41779
(Frantsesez)

Izar gazte baten portaera berezia

Guregandik 1.300 argi-urtera dagoen V1647 Orionis izarrak gure eguzkiak baino bost aldiz tamaina handiagoa du, nahiz eta dentsitatea askoz ere txikiagoa izan. Osatzen ari den izar horrek 2004 eta 2006 urteen artean argitasuna emititu zuen, 2008ra arte ilun geratu zen, eta handik aurrera berriro argitsu dabil. Zientzialarien jakin-mina eragin du portaera horrek.

ttiki.com/41780
(Gaztelaniaz)

Uste baino urre eta zilar gehiago zabor elektronikoan

VLIBERAL.COM



URTERO, PCak, telefono mugikorak, tabletak eta beste gailu elektronikoak elektrikoak ekoizteko 320 tona urre eta 7.500 tona zilar erabiltzen dira. 16.000 milioi euro xahutzen dira urtero aipatu metalen kudeaketan, eta gutxi gorabehera antzeko kopurua joaten da zabortegetara gailuekin batera.

Zabortegetan, gezurra badirudi ere, meategietan ustiatzen diren metalen gordailuak baino 50 aldiz aberatsagoak daude. Gauden krisi egoeran, eta metal horien salneurriak kontuan hartuz, negozio itzela izan daiteke zabortegei elektronikoetatik urrea eta zilarra ateratzea. Horrezaz gain, ez da ahaztu behar birziklapenak gure ekosistemarako duen garrantzia. ■



Gizen sentitu eta gizendu

Bere burua gizentzat jotzen duten nerabeek, helduak izatean, gizen izateko aukera gehiago dute besteek baino. Horixe izan da *Journal of Obesity* aldizkarian argitaratutako emandako ikerketa baten emaitza. Azterketa ikerlari norvegiarrek zuzendu dute, eta ia 1.200 gazte parte hartu dute.

ttiki.com/41781
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Apreta beltzak

HALA ZIOEN bai gure lagun baten amonak: hemen dala abuztu nazkagarri hau! Aurten behintzat halakoxea izan da. Eskerrak joan den. Joate horretan, ordea, garuna urte bidean ere jarri zait eta memorian galdutako artxiboak, orbela askan bezala, ur gainera azaleratu...

Beroa lama, urtero udak dakarkidan luxu bakanetakoa zuzeneko pilota-jokoak bizitzeko gozamen da. Errebotea eta laxoa, gehienetan. Eskuz baino zestoa, xixtera edo guantearekin jokatzen direnak ditut gustukoago. Joko horiek plaza luzetan eta ordu luzez jokatzen dira. Udaren nazkagarrienekoak direnez, ikuslearentzat itzala behar eta ia denetan platanoa (*Platanus x hispanica*) topatuko duzu plazaren txapel.

Umetatik gozatu izan dut errebotea. Aita eta osabak zestoa eskuan, kirola ez den kirol bakarra jokatzen itzaletik ikustea, memorian sekula galduko ez diren artxi-boen baheak jasotzen du. Markatutako artxiboa, markatutako gorputzaren memorian... Jokoa



Zubietako plaza aldameneko hibiskoa.

ikasteko toki onena, beti bezala, arriskutsuena da. Behin baino gehiagotan jaso dut pilotakada. Bat, ederra, berna-hezurrean danba. Kankatekoa jaso eta segituan izotza hankan banuen ere, egun osoa behar izan nuen nire onera inguratzen hasteko. Ni hara bueltatzen, ordea...

Errebotea bizi duten plazan artean dotoreenetakoa den Beterriko Zubietakoan herrikoen arteko final bikaina ikusi nuen, gustura asko! Handik lau egunera Arraiotzen jokatu zen Baztan-Erreka izena duen XXXIII. laxo txapelketaren finala. Doneztebe-ko talde gazte kementsua emeki

menperatu zuen (9-3) Iruritako talde eskarmentudunak.

Apreta izaten dut urte sasoi horretan oinetako, baina txarolezko zapata berriekin baino gusturako izaten naiz horrelakoetan. Zubietakoan bezala Iruritako plazan bada platanoen gerizpea. Nik, baina, batean eta bestean *Hibiscus siriacus*, Siriako hibiskoaren itzala nahiago.

Hantxe daude toki arriskutsuena siriarrak: Zubietan Kaleberriko baratzean eta Arraiotzen Harotzeneako atarian. Urretan itxura ederrari eta uda osoko lore emanari eusten dietenez, taxuz loratzeko nahitazeko dituzten burdina eta kobrea eskura behar dituzte izan. Ingelesak oinetakoen lorea deitzen diote; itxura denez, garai batean oinetakoak garbitu eta distira berezia emateko erabiltzen zuten lorearen aterakina. Distira horren koloreari ere “hibisko beltza” deitzen zaio, nire apreten kolore bera. ■



Etxekalte

Mihura, *Viscum album*, genero txarra da. Janzakurra da, parasittoa. Zuhaitzen adarretan bere burua landatzen du, sustraitu eta errotik kentzen dio izerdia ostatu eman dionari. Hark ez *si* eta ez *no* etorritakoa abegitsu hartzen du. Etxean bezala bestetxean. Mihurak tira eta tira, ordea, gero eta gehiago behar. Eta gero eta mihura gehiago. Zuhaitza, argazkian sagarrondoa (*Malus x domestica*), indarrez hustuko dute leher egin arte. Akitu. Akabatu arte. Sagarrondoa hilda noren errapetik tirako du mihurak? Azkenean bera ere hil... ■



Original, Kanadako euskal oreina

L'ORIGINAL (Ontario, egungo Kanada), 1674. Frantziako errege Louis XIV.ak jaurerri karta eman zion Ottawa ibaiaren ertzeko herrixkari. Horrenbestez, Frantzia Berriko herri horren euskal jatorriko izena ofizial bihurtu zen, eta gaur egun, Champlain udalerriaren barruan egon arren, 2.000 biztanle inguruko herrixkak izena atxikitzen du. Jatorriz orein saldoek gune horretan zeharkatzen zuten Ottawa ibaia, eta horregatik frantsesek Pointe à l'Original (Oreinarene gunea) izena eman zioten kokaguneari.

Euskal arrantzaleak XVI. mendeko lehen erdialdean hasi ziren Ternuako sardetan balea eta bakailaoa harrapatzen. Izotzak neguan etxera itzularazi arren, Ipar Amerikako ekialdeko kostaldean behin-behineko kokalekuak finkatu zituzten, bakailaoa lehertzeko eta Europan hain preziatua zen balea olioia prestatzeko. Samuel de Champlain edota Marc Lescarbot frantziar kolonoek jaso zutenek, euskaldunek, oro har, bertako biztanleekin harreman onak omen zituzten eta frantziarrak euskaldunen ezagutzaz baliatu ziren kostalde hotz haiek konkistatzeko. Euskal arrantzaleen interesak itsasora mugatzen zirenez, ez zuten arrasto handirik utzi: dozena erdi bat krosko aurkitu dituzte, zeramikazko objektu batzuk, hezurak, teila gorrien arrastoak...

Euskaldunek lurralde horietan munduko zerbidorik handiena, *Alces alces* espeziekoa, topatu zuten. Eta adar zabaleko oreinari, jakina, *oreina* esan zioten.

1550-1580ko hamarkadetan, euskal arrantzaleen jarduerak goia jo zuen. Baina handik aurrera Atlantikoa



NATURE CANADA

Ipar Amerikako eremu frantsesdunean, *Alces alces* espezieari *original* (oreina) esaten diote.

zeharkatzeko bidaiak behera egiten hasi ziren, hainbat arrazoi medio: balea populazioa murrizten hasia zen; kontinente zaharrea Espainia eta Frantzia elkarren aurkako gerran zirela aprobetxatuz, britainiarrak eta holandarrak hasi ziren ur haietaz jabetzen; Frantzia Berria indartu ahala, Hegoaldeko euskaldunentzat geroz eta toki gutxiago zegoen han; eta, gainera, kolonizatzaile berrien asmoak ikusita, bertako herriak, inuitak nagusiki, liskarrean hasi ziren.

Esan bezala, arrasto gutxi utzita alde egin zuten euskaldunek, baina kolono berriek hango oreinari euskaldunek bezala esango zioten: *oreina*, gerora *original* bihurtuko zena. Eta, egun, oraindik horrela esaten diote Kanada frantsesdunean eta Quebecen. ■



Arrastoak

Zinemako izarrak Donostian ibiltari



DAVID CALLE

DONOSTIAN IBILTARI izeneko erakusketa zabalik egongo Donostiako San Telmo museoan irailaren 30era bitartean. Donostiako Zinemaldiaren sei hamarkadako historiari errepasoa egiten dio erakusketak, hemezortzi argazkilariren 80 bat argazkiren bidez. Kutxatekaren bil-

dumako argazkiotan badira pertsonaia anonimoak, baina gehienak zinemako izar ezagunak dira: Kim Novak, Eve Marie Saint, Clive Owen eta Glenn Close aktoreak, Pedro Almodovar eta Robert Altman zuzendariak... (argazkian, Quentin Tarantino 1994an). ■

INMA ERREA

IRUÑEKO UDALEKO ITZULTZAILE ETA INTERPRETEA



«Itzultzaileak itota dabiltza, parlamentariak barra-barra hasi dira euskara erabiltzen»

Inma Errea (Iruñea, 1960) urtetan aritu zen kazetari lanean. Erredakzioko presak, azaletik lan egiteak eta telebistan ikusgarritasuna gailendu izanak ez zioten grazia handirik egin. Hizkuntza barrenagotik bizi nahi zuen eta akordatzerako itzultzaile eta interprete zen.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco



Errearen inpresioa da politikari batzuen euskararekiko jarrera oso errotik bizi dutena dela, ez dela kalkulu estrategiko-politikoaren emaitza, baizik eta ezinusiarena.

Iruñeko Udaleko lehen itzultzaile-interpretate postua zuk eskuratu zenuen 1997an. Zerekin aurkitu zinen?

Bizpahiru karpeta lodirekin aurkitu nintzen, paperez betetakoak, itzultitako gauzak. Erronka polita zen, dena asmatu behar nuen, zer egin, nola lan egin... Eta lan bakartia zen, nahiz eta euskara teknikaria hor zegoen.

Ni lanean hasi nintzenean herri-tarrek euskaraz bidalitako eskariak alkateak gaitu zuen administrari euskaldun batek itzultzen zituen. Ez zioten gehiago ordaintzen lan horregatik.

Euskararen kudeaketarekiko nolako giroa zegoen politikarien artean?

Aldiak egon dira. Ni sartu nintzenean tripartittoa zegoen [CDN-PSN-Ezker Batua] eta bazegoen irekitze moduko bat. Guretzako bazen jarrera aldekoago edo irekia-go. Gero etorri ziren garai gogor-rak. Ni lanean hasi eta bi urtera-edo hauteskundeetan Yolanda Barcinak irabazi zuen. Gure lana nahiko teknikoa da, baina nabaritu genuen izugarritzko mesfidantza. Batzuetan ematen zuen ez zigutela eman nahi informazio guztia itzuli ahal izateko. Gu euskaldunak ginen eta itzultzaileak [ordurako hiru

Hitz batek zenbat lan!

Iruñeko Udalean itzultzen ari-tzeaz gain, aisialdian ere egin du hainbat itzulpen Inma Erreak. Besteak beste, *Haserretu zaitexzte* eta *Ekonomialari harrituen manifestua* (Denonartean argitaletxea) itzuli ditu. “Ez dira panfletoak, baina hortik hurbilago daude literatura klasikotik baino. Unean uneko gai urgenteak dira nolabait esatear-rren, bizi garen egoeran oso aproposak”. Eta garai honeta-koak izaki, azkar itzuli behar, nahiz eta hitz bakar batek buruko minak sor ditzakeen. “*Manifeste d’économistes atterrés* itzultzerakoan *atterrés* hitzare-kin gorabeherak izan genituen. Fernando Rey itzultzailearen iritziaren kontra *harritu* hitza erabili nuen. Uste dut biok genuela arrazoi parte. Gazte-laniazko itzulpena lehenago atera zen eta *aterrados* itzuli zuten. Nire ustez, ekonomiala-rien esanak irakurrita, izututa baino harrituta zeuden haiek. Ez dakit zenbat kontsulta egin nituen. Azkenean, *izutu* hitza erabiltzea gehiegizkoa iruditu zitzaidan eta *harritu* aukeratu nuen. Harriduraren isla perfek-tua orain Espainian gertatzen ari dena da. Izua baino gehiago ezin sinetsia da”.

itzultzaile zeuden], baina arlo tekni-koan ez zen ulergarria ezta onarga-rria ere haien jarrera. Saiakera borti-tza izan zen euskara desagerrarazteko toki guztietatik. Ematen zuen ez zutela ikusi nahi euskarazko ezer inon.

Mespretxua al zen?

Mespretxua baino gehiago eziniku-sia, arbuioa. Mesfidatiak ziren eta errealitatea ukatzen zuten. Gero, halabeharrez, poliki-poliki aldatu ziren gauzak. Hala ere, segi dute kale izenak gaztelaniaz bakarrik jar-tzen, auzitegiak kontrakoa esan arte tematzen dira.

Merezi al du itzultzeak?

“Edozein hizkuntza izanda ere, komunikazioa beti da onuragarria. Gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea edo betebeharra daukagu. Etortzen baldin bada errusiar bat esaten dugu: ‘Honi itzuli behar diogu’. Bale, baina euskaldunekin, katalanekin edo galegoekin tranpa egiten da. ‘Zertarako itzuli? Egiten ahal du gaztelaniaz!’. Hori bera

esaten dutenak joaten dira Estatu Batuetara eta han errebindikatzen dute gaztelania kontuan hartzea. Kontraesana da. Han ingelesek gaztelania kontuan hartzea nahi duzu eta hemen ez, hemen zuen menpean daudenek gaztelaniaz egin behar dute. Kontu horiek ez dira hizkuntzaren alorrekoak baizik eta politikoak.

Bestalde, hizkuntzen arteko zubiak lortzeko egiten dena garesti edo merke izan, demokraziaren aldekoa da. Nahiago dut neurri horiek hartzea eta kolokan jartzen dut, esate baterako, kongresuan jakuzzia izatea. Uste dut demokratioagoa dela hizkuntzen arteko zubiak egiten gastatzea jakuzzie-tan baino”.

Iruñea zonalde mistoan dago eta euskarak bere legea du.

Udaleko ordenantzak hala badio, bete egin behar da. Izan ditu hiru aldaketa murriztaile eta laugarren bat zabaltzera egin duena, baina gero ez dute betetzen. Ez dut ulertzen jarra hori. Politikoki ez dakit zer mozkin emango dion inori. Inpresioa daukat badela zerbait oso errotik bizi dutena, ez dela kalkulu estrategiko-politiko baten emaitza, baizik eta ezin-kusiaren emaitza.

Ez da arrazionala?

Horixe. Inpresio hori izan dut askotan. Esate baterako, ni, pentsatzen dudana pentsatzen dudala, lanean ari naizenean itzulpengintzan ari naiz, eta modu arrazionalan lan egiten saiatzen naiz. Batzuk galdetzen dizute: “Aizu, hau ele bitan jarri behar da ala ez?”. Aizu, ordenantza hor dago, guk ez dugu gure iritzia eman behar.

Idatzizkotik ahozkoa jauzi egin da, osoko bilkuretan egoera zer da, gordinagoa?

Izan dira urteak alderdi politiko batzuek, batez ere batekoek, gure itzulpena entzuteko entzungailuak erabiltzen ez zituztenak.

Alegia, euskaraz ari zen zinegotzia gaztelaniaz entzuteko...

Garai gogorrenetan, protesta gisa ez zituzten jartzen entzungailuak, adibidez Euskal Herriarrok-ekoak hitz egiten ari zirenean.



“Iruñeko Udalean gero eta zinegotzi euskaldun gehiago dira, baina horrek ez du esan nahi euskara gehiago erabiltzen denik osoko bilkuretan. Nolabaiteko beldurra dute”

Zenbateraino egiten dute zinegotziek euskaraz osoko bilkuretan?

Gero eta gehiago dira euskaldunak, oposiziokoak eta oposiziokoak ez direnak. Ni sartu nintzenean esate baterako, bazen bat CDNko euskalduna, Adarraga hernaniarra, eta

noiz edo noiz egin zuen euskaraz. PSNko jendea ere izan dugu, eta euskal alderdietakoak. Gero eta gehiago dira, baina horrek ez du esan nahi euskara gehiago erabiltzen dutenik bilkuretan. Nik uste dut nolabaiteko beldurra dute.

Euskaldunak bai, baina ez dira ausartzen euskaraz egiten?

Ez dira ausartzen edo iruditzen zaie zuzenago komunikatzen dutela gaztelaniaz, uste dute bizitza pribatuan ongi moldatzen direla euskaraz, baina diskurtso politikoa egiteko beste ez dakitela. Batzuetan pentsatzen dut mesfidantza dutela, ez gurekiko, baina bai itzulpengintza sistemaren funtzionamenduarekiko.

Nafarroan ari gara, Iruñea aldean, jende asko euskaldunberria da. Ni ere euskaldunberria naiz. Horrek ez du galarazten berez ezer, baina sentipena subjektiboa izan daiteke.

Beraz, zuk esan duzuna: gero eta euskaldun gehiago bai, baina erabilera ez da areagotu.

Parlamentuko itzultzaileek gauza bera esaten zuten, baina legegintzaldi honetan itzultzaileak itota daude, euskara barra-

barra erabiltzen hasi direlako politikariak. Gurera ez da iritsi oraindik uhin hori. Hau irakurrita, igoal hemendik urtebetera gurean ere hasiko dira euskaraz. ■



Zein patrikatik atera zen dirua?

Bizkaiko familia ezagun eta garrantzitsu batzuek eta zenbait euskal erakundek –bereziki, Nafarroakoek– aktiboki finantzatu zuten errepublikaren aurkako altxamendu frankista. Jose Angel Sanchez Asiain bankari ohiak erakutsi du hori *La financiación de la guerra civil española* izeneko lanean.

| DANIEL UDALAITZ |



Karlistek gerra aurreko urteetan armak inportatu zituzten ezkutuan Nafarroara eta gordelekuetan bildu zituzten. Nazioartean armak erosteko dirua Mussoliniren Italiako Gobernuak utzi zien.

FRANCOREN 1936KO altxamendu militar kolpezaleari erreferentzia eginez, honela dio egileak: “Nafarroaren, Marchen eta Portugalen finantzaketarik gabe, altxamendua ez zen aurrera aterako; aste gutxitan desegina izango zen”. Hogei urtez

ikertzen aritu ondoren, hori da BBVAko presidente izandako euskal katedradun, ekonomialari eta bankariak ateratako ondorioetako bat. 1.309 orrialdeko liburu atera du berriki, *Crítica* argitaletxearekin, *La financiación de la guerra civil española*

izenburupean. Liburuak ikuspegi orokorra jasotzen du, kolpezaleen eta errepublikarren ekonomia eta finantzak benetan zer-nola gauzatu ziren azaltzeko. Lan zabal horretan, beraz, bi aldeen finantzak aztertzen ditu, bai eta bankuen eta kutxen egi-



Sánchez Asiainek Euskal Herriko oligarkiak gerra zibilaren finantzazioan izan zuen paper garrantzitsua ere sakon lantzen du bere liburuan.

tekoa, errepublikarren eta frankisten diru bilketak, eta Kataluniaren eta Euskal Herriaren independentzia finantzarioa.

Sanchez Asiainek azpigitulu hau gehitu dio lanari: *Hurbilketa historiko bat*. Berak dio urteetan bildutako eta kontrastatutako materialak garraiatzea baino ez dela izan azken batean, eta zenbait gogoeta egitea, bere hitzetan, gogoeta pertsonalak, oso pertsonalak ere izan daitezkeenak. Gogoeta horiekin, Espainiako Gerra Zibila ekonomiaren eta finantzaren ikuspegitik nola-koa izan zen sakondu nahi izan du egileak. Berezi azpimarratzen du hurbilketa historiko bat dela, jakitun baita galdera gehiegi daudela, fenomeno beraren ikuspegi eta egoera gehiegi... Baina, bere ustez, ekarpen eta informazio berriak inoiz ez daude sobera historian, “zer gertatu zen” argitzeko. Horregatik, bankari ohiarentzat, ez dira behin betikoak gerra zibilaren finantzaketari buruz egin dituen azterketen emaitzak, eta horrenbestez, informazioa duen jendeari informazio hori jakinarazi diezaion eskatzen du, bere lana amaitu ahal izateko.

Espainiako Bankuko lehen eskuko agiriak

Sanchez Asiainek ematen duen informazioak oso iturri fidagarriak ditu. Orain dela mende erdi hasi zen garai hartako Banco de Bilbao, Ikasketa Zer-

bitzuko arduradun. Bere zuzendariak, gerra zibilean Espainiako Bankuko aholkulari izandakoak, zenbait agiri utzi zizkion. Agiri haietan ikusi ahal izan duenez, ekonomiaren normaltasuna eten egin zen 1936 eta 1939 bitartean: bi pezeta, bi Espainiako Banku, bi inflazio prozesu eta gizartea ulertzeko bi modu, guztiz kontrajarriak. Bankari ohiaren ustez, “laborategiko kasu bat da, inondik ere”. Finantza munduan gero eta ardura handiagoak hartzen ari zen, baina Sanchez Asiainek ez zion gaia aztertzeari utzi. Espainiako Historiaren Errege Akademitan sartu zenean ere, gai horri buruzkoa izan zen sarrera hitzaldia: *La banca española en la guerra civil* (Banka espainiarra gerra zibilean).

Bankari ohiak material bikaina izan du eskura: gerra garaian bulegoetako arduradun izan ziren 150 pertsonari egindako elkarrizketa grabatuak, BBVA-ren artxiboak —erakunde horretako presidentea izan zen zenbait urtez—, Ekonomia Ministerioarenak, Zientzia Moralen Akademiakoak eta Espainiako Unibertsitatearen Fundazioarenak.

Zenbat kostatu zen gerra?

Egileak ez du zifrarik eman gerra zibilaren kostuez, baina ez du baztertzeko etorkizunean ematea, horretaz ikertzen baitabil oraindik. Edonola ere, balorazio orokorra egin du: “Errepublikak gerra zibila ordaindu zuen, iraganean aurretutakorekin —Espainiako Bankuan gordetako urrea—, eta Francoren Burgosko gobernuak finantzatu, etorkizuneko aurrezkiekin



...ametsetan bezala

**ATXASPI
HOTELA**

Bittiria, 24
Lesaka (Nafarroa)
T.: 948 637 536
hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com





Ramon de la Sota industrialariaren (eskuinean) ondasunak konfiskatu zituen erregimenak errepublikaren alde azaldu zelako, tartean egun Athleticen egoitza den Bilboko Ibaigane jauregia (ezkerrean).

–kanpo zorpetzea–”. Asiainek esan izan duenez, bi aldeek jaso zituzten bai borondatezko ekarpenak (harpidetzak), bai gogoz kontrakoak ere (konfiskatzeak), Ramon de la Sota euskal errepublikazaleari gertatu zitzaionak erakusten duenez.

Ezohiko gerra zerga Nafarroan

Nafarroako Foru Aldundia “armadaren eta herriaren nazio askapenerako mugimenduaren” zerbitzura zegoen, eta oso garrantzitsua izan zen gerra zibilaren finantzaketan. Zergak ezartzeko eta dirua biltzeko ahalmena zuenez, Aldundiak kontrolatzen zuen Nafarroako Ogasuna. 1936ko abuztuan, Aldundiak ezohiko gerra zerga ezartzea erabaki zuen, altxamendu frankistaren gastuak ordaintzeko. “Ezohiko izaeraz” zergapetzen zituzten “kapitalak sortutako errenta eta diru sarrera garbiak, edonolakoak zirela ere, denetarik ordainsariak, dirutan zein gauzatan izan –norberaren lanaren ondorio zirenak–, eta merkataritza sozietateetako edo elkarteetako kapital fiskalak edo horien parekoak”. Zerga oinarriei derrigorrezko kuota jakin bat ezartzen zitzaizen, kasuan kasu: %6koa, 3.000 eta 6.000 pezeta bitarteko zenbatekoetarako, eta %50ekoa, 300.000 pezetatik gorako oinarrietarako. Zerga ezarpena orokortzeko, urtean 100 pezetako kuota finkoa ordaindu behar zuten zerga horretatik salbuetsita gelditutako Nafarroako gizonetzko guztiek, salbu eta 18 eta 28 urte

bitarte izanik armadako zerrendan edo miliziaren batean boluntario izen emanda zeudenek.

1937ko urtarriletik 1938ko martxora bitarte, ezohiko gerra zergari esker 12,5 milioi pezeta bildu ziren. Nafarroako Aldundiak, gainera, beste gerra zerga batzuk ezarri zituen: ikuskizunetakoa, tabakoarena eta gerrako diru-laguntzak eta arretak emateko zerga. “Gerra zerga” horiekin, 13.942.813,12 pezeta bildu zituen, 1937 eta 1941 bitartean. Nafarroak altxamendu frankistaren alde egin zuen ahalegina ulertzeko, aski da adieraztea Nafarroan 1936. urterako aurrekontuetan aurreikusitako zerga guztien zenbatekoa 18.903.519 pezetakoa zela eta Nafarroaren gastu partidarik handiena Estatuari zuzeneko kontribuzio bidez ematen ziona zela, 1927ko hitzarmenari jarraiki: sei milioi pezeta.

Aldundiak, altxamenduari laguntzeko eta “erlijioa, bake materiala eta gure askatasun foralak babesteko”, maileguak eman zizkion Mola jeneral militarri, hiriko buru militarra zenari eta altxamenduaren gakoetako bat izan zenari; horrez gain, boluntarioen familientzako diru-laguntzak sortu zituen, eta herritarren artean harpidetzak egin zituen probintziako soldaduentzat.

Armak, karlisten etengabeko kezka

Karlisten ekarpena –Nafarroa izan zen haien zutabeetako bat– ezinbestekoa izan zen altxamendu kol-

pezalea garatu ahal izateko. Sanchez Asiainek dioenez, karlisten kezka nagusietakoa armak nola eskuratu izan zen; haiek erosi, eta Euskal Herriko gordetegi ezkutuetara eramaten zituzten, edo bestela, Portugalera garraiatzen zituzten. 1936ko ekainean, karlistek gerrako material asko erosi zuten atzerrian, Mussolinik utzitako diruarekin. Javier de Borbon eta Fal Conde izan ziren horren arduradun. Zugarramurdiko, Bertizko eta Aezkoako mendiak eta Pasaia izan ziren armak garraiatzeko igarobide nagusiak, eta gero, Berbintzanara, Corellara eta Cascantera eramaten zituzten. Armak eskuratzeaz gain, fabrikatu ere egin zituzten karlistek. Besteren artean, esku bonbak egin zituzten Caparrosoko eta Mañeruko lantegi txikietan. Eta Traibuenasen, arma gorde-tegi handi bat sortu zuten.

Arriluce de Ybarrako markesa, diru biltzaile

Asiainek egindako ikerketaren arabera, 1932ko irailaren amaierarako, hasiak ziren baliabide ekonomikoak biltzen, errepublikaren kontra borrokatzeko. Dirua biltzeko batzorde bat eratu zuten. Atzerrian, Andeatako kondea izan zen batzordeko buru, eta Espainiako Estatuan, Arriluce de Ybarrako markesa. “Zerga ordaintzaileen” zerrendan, euskal familia ezagunak ageri dira: Jose Luis de Oriol (milioi bat pezeta); Juan Tomas Gandarias (250.000 pta.); Urkijoko markesa

Ramon de la Sotaren ondasunak

Altxamendu frankistak, edonola ere, ez zuen dirua Nafarroatik, March etxekoen eskutik eta atzerritik soilik bildu. Jurisdikzio berezi bat ere baliatu zuten, erantzukizun politikoena, hain zuzen, 1939ko apiriletik aurrera ere luzatu zena. Kasu paradigmatikoa da Ramon de la Sotaren familiarena. Errepublikarekiko leial, Euskal Herriko aberastasun handienetakoa zuen.

Ramon de la Sota 1938an hil bazen ere, haren eta haren familiaren aurkako espedienteek irekita jarraitu zuten. 1938ko urtarrilean, Ramon de la Sotari —ordurako, hila— eta haren semeei isun ekonomikoak ezarri zizkieten. Aitari 100 milioi pezetako isuna ezarri zioten; hiru semei, berriz, 100, 80 eta 60 milioikoak. Ilobetako bati 20 milioikoa ezarri zioten. Haiez gain, zigortu egin zituzten Sotaren alarguna, alabak, errainak eta suhietako batzuk. Guztira, 13 pertsona. “Zenbatekoei dagokienez, agintari frankistek Espainia guztian ezarritako isunik handienak izan ziren”, dio Sanchez Asiainek. Eta horrez gain, dio isun horiek irmoak zirela, eta ez zegoela haien aurka errekurtsoa jartzerik. Akusatuek 15 egun zituzten isunak ordaintzeko. Bestela, haien ondasun guztiak Estatua-arentzat izango ziren. Sotatarrei, ordea, ez zieten ebazpena pertsonalki jakinarazi, hilda edo ihes eginda baitzeuden, eta ebazpena ez zen argitaratu ez Espainiako Boletín Ofizialean ez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere.

1935ko abenduaren 31ko balantzearen arabera, Ramon de la Sota Taldearen ondasun higiezinak 35,3 milioi pezetako balioa zuten. Eraikinei dagokienez, besteak beste honako hauek konfiskatu zizkieten: Ibaiganeko jauregia, gero Bizkaiko Gobernu Militar bihurtua eta egun Athleticeko egoitza dena, eta beste eraikin batzuk, Bilboko Mazarredon eta Kale Nagusian. Enpresak 4,7 milioi pezetako balore zorroa zuen, eta gainera, 1,2 milioi zituen taldeak kreditutan. Guztira, 41,2 milioi pezetako. Taldearen funts propioak 10,7 milioi pezetakoak ziren. Bestalde, De la Sotak partaidetzak zituen Bizkaiko 447 sozietate anonimotan. Hau da, aberastasun izugarria zuen familiak, orduko milioi pezetak oraingo milioi euroekin konparatzen dakienak ikus dezakeenez.

Bilbon ireki zioten Ramon de la Sotari espedienteak, 1937ko ekainaren 19an, hiria Mola jeneralaren eskuetan erori eta egun gutxira. Eta 1966an indultua eman zitzaizen arte iraun zuen. Ramon de la Sota semea eta haren anaiak, Alejandro eta Manuel, prozesatu egin zituzten. Behin-behineko askatasuna eman zieten, baina enpresa kontseilueta eta gerentziako karguetan egotea debekatu zitzaizen. 1982an, berriz, ezarritako isuna gauzatzeko Estatuak 1940ko hamarkadan bereganatutako ondasun guztiak berreskuratu ahal izan zituzten, Konstituzio Auzitegiaren epai baten ondorioz.

(250.000); Zabalbururen alarguna (250.000 pta.); Garay (250.000); Zubiriaren alarguna kondesa (200.000); Arestiko kondesa (200.000); Txabarriaren alarguna (200.000); Txabarriko markesa (200.000); Trianoko markesak (100.000); Agirre

(300.000); Arriluce de Ybarrako markesa (500.000). Behartuta edo euren borondatez, milioika pezeta atera ziren Euskal Herriko dirudunen poltsikoetatik Francori laguntzeko. ■



VITORIA GASTEIZ



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GIZARTE ETXEAk zuregandik HURBIL

Oraindik izena emateko epea irekita, agian, zuk ez duzu beharko, baina animatu ingurukoak euskara ikastera!

Uztailak 9, 19:30

Euskara ikastaroak

- > Gurasoentzat
- > Aitona-amonentzat
- > Etorkinentzat
- > Merkataritzako langileentzat

Euskaraz egin ditzakezun hainbat ekintza

- > Kirola
- > Gela irekiak
- > Gizarte-sustapenerako ekintzak (Zozketarik gabeko jarduerak)

XTRAKLUB!

> Topagune, Xpress lantegiak, Xtra lantegiak, Xtra kirola, hiriko irteerak, kirol abentura, kultur bidaia eta irteerak

12 eta 18 urte bitartekoentzat
Irailak 19tik lekuak bete arte

GAZTE KLIK

> Argazki digitalen lehiaketa

14 urtetik 25era bitarteko gazteentzat

Gaia: Ekologia eta gazteria.

Naturaren gaineko hainbat begirada hirian zehar
Lanak emateko epea urriaren 12ra arte

MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari bazara, aspaldian ikasi bazenueneta ez duzu norekin hitz egin...

Hona hemen aukera ezin hobea: **Mintzlaguna**.

Urritik aurrera, animatuko al zara?

Baldintza bakarra, 6. urratsetik gorako maila izatea. Urtero mintzlaguntzaileak behar izaten ditugu, aurten animatuko al zara?

Tel. 688 819 118

mintzlaguna@geugasteiz.com

www.gasteizkomintzlaguna.com

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Programa arrunta

- > Herritarrentzat

Programa berezia

- > Aisialdiko begiraleentzat
- > Eskola kiroleko entrenatzaile edo begiraleentzat
- > Aurrekoetarako ikasten ari direnentzat
- > Gurasoentzat
- > Merkatarientzat

Informazioa

Udaleko Euskara Zerbitzua

Sta. Maria 11, Tel.: 945161522

www.vitoria-gasteiz.org/euskara



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Beste elefante bat gure gelan: kredituaren gailurra

Elefantez beteriko gelan mugitzea izen deigarria duen hitzaldi batean Nathan Hagens finantza adituak egun dugun erronka handienetako batez ohartarazi du: 1970eko hamarkadatik, energia krisiari aurre egiteko kredituan oinarrituriko ekonomia sortu dugu. Baina hau ere iritsi da gailurrera.

| URKO APAOLAZA |

PETROLIO UPELAK ez du 100 dolar balio. Upel horrek adina energia lortzeko, pertsona batek 11 urtez egin beharko luke lan, eta AEBetako langileak urtean bat az besterik 45.000 dolar irabazten dituenaz, upelaren zifra erreala 500.000 dolar litzateke. Kontu horiek atera zituen Nathan Hagens finantza adituak, petrolioaren gailurra ikertzen duen ASPO elkartearen X. Biltzarrean.

ASPOk (*Association for the Study of Peak Oil*) Vienan 220 lagun bildu zituen ekainean, erregai fosilez eta energiaren krisiaz eztabaidatzeko. *Peak Oil* teoriaren fundatzaileek sortu zuten ASPO, Jean Laherrère eta Colin Campbell. Teoria horren arabera, petrolio produkzioak goiena joko du eta ondoren gainbehera etorriko da. Munduan kontsumitzen dugun energiaren %80 petroliotik eratorria da.

Lehman Brothers-etik etxalde apal batera jauzi

Gero eta gehiagok onartzen du fenomeno a jadanik gertatzen ari dela; askoren ustez 2010ean jo zuen gailurra petrolio produkzioak eta egun bizi dugun finantza krisia horren ondorio izan liteke. Nathan Hagens ekonomia eta ekologiararen arteko harremanak ikertu ditu, ez da edonor gainera. Unibertsitateko tesi eta masterrek baino haridura handiagoa sortuko diote irakurleri bere curriculumean irakurtzen duenean Lehman Brother-



WIKIMEDIA COMMONS

Peak Oil edo petrolioaren gailurrarena baino arazo larriagoa dugula dio Hagens: kredituaren gailurra. Etorkizuneko dirua erabiliz azkarrago xahutu dugu energia.

seko presidenteorde izan zela. Baina enpresentzako algoritmo konplikatuak egiteari utzi eta Wall Streeteko palazioetatik AEBetako etxalde apal batera aldatu zen halako batean.

Geroztik saiatu da ulertzen zerk bultzatzen duen gizakia kontsumo- ra, zer harreman dagoen diruaren eta mundu finitu honen artean. Zerk egiten duen huts. Bere esanetan, finantzak gidatzen dituzten ekonomistek ez dute mundu fisikoa ulertzen, nola zientzialari askok ez dituzten ulertzen kontu ekonomikoak. Orduan, Hagens natur baliabi-

deen inguruko doktoretza egin zuen eta *The Oil Drum* aldizkaria editatzen hasi zen. Post Carbon Institute-ko kide da egun, besteak beste.

Vienako biltzarrean bat baino gehiago asaldatu zuen esaldi honekin: “Kredituaren gailurra hurbilago dugu, petrolioaren gailurra baino arazo larriagoa da”. Energia krisiari aurre egiteko kredituan oinarrituriko ekonomia sortu dugu azken hamarkadotan, etorkizuneko dirua erosiz: “Gure seme-alabei lapurreta egiten ari gara!”. Baina diruak ez du energia sortzen, diruarekin energia



ASPO2012

Nathan Hagensen Vienako hitzaldia bideoz entzun daiteke osorik ingelesez www.aspo2012.at webgunean.

azkarrago eskuratzea besterik ez dugu lortu.

ASPOko biltzarreko hitzaldiaren harira Alexander Ač kazetariak elkarrizketa izan zuen Nathan Hagensekin *Energybulletin.net* aldizkari numerikoan. Bertan estatubatuar-rrak ederki asko laburbiltzen ditu bere teoriak. Elkarrizketa tximistaren abiadan zabaldu da sarean, bai ingelesezko jatorrizko bertsioa eta baita *Rebellion.org* webguneak egindako gaztelaniazko bertsioa ere. Segidan, Hagensen elkarrizketa horretan esandakoen pasarte esanguratsu batzuk doazkizue.

“Energia gizartearen gidari nagusia izan da betidanik, baina azken 30 urteetan ez gara gai izan ordaintzeko denbora errealean nahi genuen energia hornidura, hortaz, diru gehiago jaulki dugu kreditu formarekin, energia hori ordaintzeko. (...) Gure arazo ekonomikoak hasi baziren erauzteko zailagoa eta garestiagoa zen energiaren eraginatik, orain arazoa da zenbat betekizun finantzario dugun mundu gartuan eta garatzeko bidean denean.

Gure gizartea –Europa, AEB eta gero eta gehiago Txina eta beste toki batzuk– estimulazio eta kontsumo maila handiarekin ohitu da. (...) Egunero esnatzen gara dopamina/estimulazio neurologiko kopuru zehatz baten beharrean, eta gure kultura prestatuta dago garuneko produktu kimiko horiek lortzeko, erabilera intentsiboaren bidez kontsumituz eta lehiatuz. Baliabide finituak dituen mundu batean, hori arazoa da. Jendeak

‘gehiago’ nahi du eta beste jende bati kentzen lortzen du, beste espezieei, beste belaunaldiei. Horrek narama esatera egoera hau ‘gehiegizko aurreikuspenak’ sortu duela, eta ez ‘energia eskasiak’.

[Kazetariak harrituta ihardesten dio orduan: baina ezin diozu hori esan energia eskuratu ezinean dau den bi mila milioi pobreei]. Egiaz, bai. Jendeak, demagun Indian, AEBetan baino trantsizio askoz errazagoa izango du hazkunde globalaren amaiera baterantz, ez direla-

“Egunero esnatzen gara dopamina/estimulazio neurologiko kopuru zehatz baten beharrean, eta gure kultura prestatuta dago garuneko produktu kimiko horiek lortzeko”

Nathan Hagens
Finantza aditua

ko inoiz izan nazioarteko fluxu konplexu horien menpeko eta euren garunak ez dira estimulazio eta berritasun maila altuen beharrean egon. Horiek desagertzen direnean, AEBetan eta European jendeak gaizki pasako du; Indian gehienek euren eguneroko bizitzarekin jarraituko dute. Horregatik uste dut energiaren eta baliabideen banaketa bidezkoa garrantzitsua dela.

1920 eta 1930eko hamarkadetan kreditu krisia izan genuen, baina orduan energia merkea eta baliabide ugari geratzen zitzaizkigun. 1970eko hamarkadan baliabideen krisia izan genuen, eta hari aurre egiteko kredituan oinarrituriko ekonomia baterantz egitea aukeratu genuen. Dolarra patroil global bihurtu genuen eta zor publiko eta pribatu kopuru masiboak sortu genituen. Baina orain, bietan mugak aurkitu ditugu: benetako krisi bat da, eta kredituak eta baliabideak jada ez dira nahikoa hazkundea elikatzeko.

Lotura argia dago, onartua ez izan arren, diruaren eta energiaren artean. Dirua, energiaren eta etorkizuneko baliabideen eskaria da; zorra, etorkizuneko diruaren eskaria den moduan. Zorrak ez du energia sortzen, baina zorra eskura izateak errazten du energia azkarrago erauzi ahal izatea. Nola Cantarell bezalako hobi batean zulo horizontalek eta nitrogeno injekzioek behin behineko petrolio gehiago ateratzea ahalbidetzen duten, hala egiten du zorrak ekonomiarekin.


Zorraren eskaintza eta sorreran oinarrituriko ekonomia errotuegi dago establishment ekonomikoan. Zorrak ez du zertan zerbait txarra izan behar. Soilik txarra da gastatzen dugun hori nahikoa produktiboa ez denean itzultzeko. Behar duguna petrolioaren gailurreko keynesianismoa da. Daukaguna, keynesianismo turbotzantzarioa da”. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
☎ 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Alderdiaren aurka, katalana defendatu ahal izateko



ANTONI PASTOR Espainiako Estatu Balear Uharteetako parlamentuko diputatua da eta Manacorrek alkatea. Bere alderdiak, PPk, alderditik bota du parlamentuan PPren hizkuntza politikaren aurka bozkatzegatik. Balear Uharteetako PP nabarmen ari da katalanaren aurka hizkuntza politika egiten. Vila-web agerkari katalanak egindako elkarrizketan kazetariak galdetu dio ea zergatik parlamentuan ez zuen PPko beste kide guztien bozka bera eman. Hona erantzuna: “Hizkuntza oinarritzko gaia da eta neure-neurea. Hizkuntza herri baten nortasun ezaugarria da eta ezin da arriskuan jarri. Beraz, nire kontzientziaren arabera eman dut bozka, alderdiaren aginduak baino garrantzitsuagoa da hori. Hizkuntza eta nortasuna talde politikoen gainetik daude.” ■



Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Telebista-lizentzia lehiaketan euskarak 5 puntu balio ditu

NAFARROAKO GOBERNUAK hamabost urterako 22 telebista lizentzia atera ditu lehiaketara: bi herrialde osorako eta beste hogeia bost eskualdetako tokiko telebistentzat: Iruñerrian, Lizarrerrian, Zangozaldean, Tafalla inguruan eta Tuterako Merindadean. Lizentziak lortzeko lehian izango diren 100 puntuetatik bost izango dira euskararen erabilera kontuan hartuko dutenak. Eta bost puntu horiek lortzeko, nahikoa

izango da telebistaren produkzio propioaren %20 euskaraz izatea.

Lehiaketan aintzat hartuko diren baldintza gehienak teknikoak diren arren, edukiei dagozkienak ere zehaztu ditu Gobernuak: “Nafarroako Foru Erkidegoaren identitatea, instituzioak eta sinboloak errespetatzea, eta foru erkidegoa berezko lurralde gisa agertzea, bereizita, bai grafikoki eta bai deskribapenetan”. ■



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

Talaian

Washingtonetik Marikanara, Gasteiz ahaztu gabe

ARTIKULU HONEN IRAKURLEA harritu egingo da izenburuarekin, elkarrengandik oso urrun dauden hiriak lotzen baititu: Washington AEBetan, Marikana Hegoafrikan eta Gasteiz Euskal Herrian. Hain urrunekoak eta aldi berean hain igoalak, agintean dagoen sistema kapitalistak eta bere poliziek hiru hirietan izan duten ekintza asasinogatik. Azken egunetan langile masakrea gertatu da Marikanan, poliziak platino enpresa bateko 34 meatzari beltz hil ditu. Multinazional ingelesa Lonmin da, zuriak kudeatua. Arrazoia, soldatak hobetzearren egindako greba. Meatzariek 400 euro irabazten dituzte eta 1.250 euro eskatzen zituzten, egungo soldataren hirukoitza, euren txabolak abandonatu ahal izateko. Lanera itzultzen ez baziren despedituak izango zirela esan zieten, baina hala ere grebari eutsi zioten: “Jendea hilda dago eta oso haserre gaude; lanera itzuliko bagina alferrik hil izan balira bezala izango litzateke”, esan du grebalarrien bozeramaile batek.

Historia errepikatu egiten da. 1886an ehunka langile jipoitu zituzten, 14-16 orduko lan-eguna murriztea eskatu zutelako. Salatzeko hiri ugari-tan manifestazioak egin zituzten eta horren ondorioz sei langile urkan hiltzera kondenatu zituzten. Geroztik ospatzen da Maiatzaren Lehena mundu osoan. Gure artean, 1976an, polizia frankistak Gasteizko langileak masakratu zituen. Lan hitzarmenen alde greba orokorra egiten ari ziren eta haietako bost langile poliziaren balek hil zituzten. Ondorioa: gaur, atzo bezala, kapitalismoak boterea eta etekinak izaten jarraitu nahi du, eta prest dago polizia eta kudeatzaile politikoen bidez jendea hiltzeko. AEBetan, Hegoafrikan, Euskal Herrian eta mundu osoan. Jakin behar da hori, eta prestatuta egon. ■

Juan Mari Arregi



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Atzo gerra fronte, gaur bakerako ate

JOSU URIBETXEBARRIA bere etxean egon liteke irakurleak lerro hauek irakurri orduko, Jose Luis Castro epaileak seguruenik aste honetan erabakiko baitu preso arrasatearrek zer egin. Eta denak adierazten du logikoena eta legezkoena aske uztea litzatekeela, horretarako baldintza guztiak betetzen direlako: bere osasun egoera larria eta sendaezina batetik, eta legezko lurrertze pista ere prestatua dagoela bestetik –PPren Gobernuak hirugarren gradua emana dio eta Auzitegi Nazionalako fiskaltzak ez du helegiterik jarri horren aurka—. Horiez gain, gisako kasuetan Castro epaileak, preso gaixoen aldeko joera hartu ohi du.

Baina preso uzteko aukerarik badagoela ezin uka, bestela nekez uler daiteke Auzitegi Nazionalako mediku txostena bera, Uribetxebarrria kartzelan jarraitzeko egoeran dagoela adierazten duena. Donostiako Ospitaleko eta Zaballako kartzelako txostenak ere, dena den, mahai gainean ditu epaileak eta hauen arabera, presoaren egoera kalean egoteko modukoa da.

EUSKAL HERRIAN, alabaina, hala-ko auzi bat nekez geratzen da bakarrik eremu humanitarioan. Azken 30 urteetako espetxe munduaren irakurketa politikoa eginda, argi da ezker abertzaleak espetxeetako frontea baliatu duela bere borroka eta barne kohesioa elikatzeko, bai bere barne eskemak eta logikak hala eskatzen zutelako, eta baita Gobernu espainiarren errepresio politikek behin eta berriz erantzuteko aukera ematen zutelako ere.

Espainiak erabilera politiko ankerra egin du espetxe politikaz eta berau pertsonaren aurkako oinarritzko eskubideak zantpatzeko erabili du etengabe, presoak bakarrik ez, bere senitartekoak ere

zigortuz, batez ere sakabanaketa politikarekin. Mikel Egibar presoaren senitartekoek abuztuaren 7an izandako istripu larria da horren erakusle. Honek argi erakusten du oraingo Euskal Herrian Estatuak bakarrik urratzen dituela giza eskubideak; argi erakusten duen moduan ETAn biolentzia salatu duten denek ez dutela jarrera bera biolentzia mota guztiekin eta bere ondorioekin.

*Azken 30 urteetako
espetxe munduaren
irakurketa politikoa
eginda, argi da ezker
abertzaleak
espetxeetako frontea
baliatu duela bere
borroka eta barne
kohesioa elikatzeko*

Bai, astea joan eta astea etorri, senitartekoak Cadizera joanaraztea eta horren ondorioz istripuak, zaurituak eta hildakoak direnean, hori iraganeko espetxe politikaren ondorio da. Eta, argi eta ozen esan behar da, zilegia, humanitarioa eta bake prozesuaren aldekoa da egungo espetxe politika kalean, instituzioetan eta edonon salatzea. Egin beza bakoitzak bere erara, baina egin bedi. Egiatzko enpatia duenak ezin die bere biktimen sufrimenduari bakarrik begiratu.

Asko dira Espainiako gobernuen zigor eta mendeku politikak, preso munduan banaketa bilatuz, ETAn eta ezker abertzalean ere banaketa bilatu ohi dutena. Eta ezker abertzaleak urteetan zirrikitu gutxi utzi du esparru horretan, irtenbide pertsonalak traizioarekin parekatuz eta askotan hauek gartu dituzten presoan isolamendu

soziala ere bultzatuz. Presoek gerra logika batean zuten funtzioaren erakusle zen jarrera hori, eta Estatuak ere ondo baino hobeto bereganatu duen gerra logika horretan, bakea eraikitzeko garaian presoena da ezker abertzalearen kate-begi ahulena.


Baina agerikoa da beste garai batzuetan bizi garela, jadanik ez dago ekintza-errepresio eskemarik elikatu beharrik, hauek gaititu beharra baizik, eta PPk ezik gainetako alderdi guztiek sinatu zuten Aieteko Adierazpenak eskaintzen du horretarako biderik. Eta PP ez dagoelako aukerarik eskaintzen ez badu, EAEko hauteskundeon ondoren eratu beharko litzatekeen bake prozesua bultzatzeko foroak agendaren lehen lerroan izan beharko du preso gaia. Patxi Lopezen bakea eta elkarbizitzarako ordezkari Jesus Lozak berriki gogorarazi duen legez, gaia geldidago eta irailerako azeleratu beharko litzateke.

KURTSO HASIERA indartsua dator: oporren ondorengo ohiko aldapez gain, ikusgai da Uribetxebarrria auzia nola itxiko den. Krisiari dagokionez, putzuan hondoratuz jarraitzen dugu eta gero eta ahots gehiagok dio udazkenean Espainiaren erreskate orokorra saihestezina dela. Euskal gizartearen zati batek berriz ere greba orokorrarekin erantzungo dio egoera horri irailaren 26an. Eta guztia EAEko hauteskunde kanpaina gogor eta lehiatuaren magalean gertatuko da, Eusko Legebiltzarrerara EAeri dagokion egiazko ordezkari zeta eramango duena eta, lau hantetako Legebiltzarrarekin, aro politiko berrian harri garrantzitsua jarriko duena. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



-alde zaharra- Donostia

JAN
EBAN
ENTZUN
TRUST
ETA
TRAST

A fuego negro
jatetxea

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1

Iruñeko Planetarioa

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

STM
San Telmo Museoa

San Telmo Museoa

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

3

Artez euskara zerbitzua

8 harpidedunentzat
irakaskle agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4

Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2332. Argia)

ATXASPI HOTELA

- German Orbegozo Orbegozo (Donostia)

SAN TELMO MUSEOA

- Pake Garzia Konde (Orio)
- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
- Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)
- Etxalarko Liburutegia Etxalar
- Iker Elozegi (Hazparne)

KIROLAZ BADAKIT

- Koldo Atola Kortajara (Donostia)
- Gerardo Mendizabal Aizpuru (Hondarribia)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-museoa

- Arantzazu Beitia Bengoa (Gasteiz)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
- Iker Urkia Martinez De Lahidalga (Aretxabaleta)
- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)

JERONIMO MARTIN sexteto "Quinoa" CDA

- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Estebe Ormazabal Insausti (Beasain)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

